



ARGIA

2003ko urrian
Artozki eraitsi zuten
hondeamakinek,
bi astetako
erresistentziaren
ostean.



ITOIZKO HERRIEN DEFENTSAK 20 URTE

Borrokan jarraitzeko arrazoiak ez zituzten urperatu

24-29. orrialdeak



**"Amerikarra eta
euskal herritarra naiz,
bihotzez, euskalduna"**

14 | STEVE MENDIBE



**Andoaingo
eskola, familia
euskaldunen zain**

34 | SEGREGAZIOA



**Vogue dantzaren
aitzindaria
Iruñean**

52 | ANOUAR MERABETE

ARGIA EGUTEGIA 2024

Hurrengo urtean ere, egunero efemeride bat.



+ 5€
bidalketa gastuak.

40 €-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

10€

Memoria ahuldu egiten da lantzen ez bada. Hala zioen Zizeronek eta arrazoi horregatik, bosgarren urtez ARGIAko egutegi honetan efemeride historikoak aurkituko dituzu egunero orrien atzeko aldeetan. Hedabide hegemonikoek beren errepaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira gehienak, argi esateko. Urteurren borobilez kargatuta datorkigu urtea.

Orrien aurreko aldeetan, data argi eta garbi, euskal izendegia, eguzkiaren eta mareen informazioa, eta jai egunen erreferentziak -arrotzak direnak, hala zehaztuta gainera- 2024 on!

Aurre-salmenta:

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: GARI BERSALUZE

Iritziak

- 19 | NORA SALBOTX
- 20 | KATIXA DOLHARE
- 21 | ARKAITZ ZARRAGA
- 21 | EVA PEREZ-PONS
- 22 | AINGERU EPALTZA

Finkoak

- 38 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
ANOUAR MERABETE
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



ESTHER CHICA

30 | "EUSKAL HERRIA ERE NABARMENTZEN DA ESKLABOTZARI BURUZKO MEMORIA-POLITIKA EZAGATIK"

Martin Rodrigo Kataluniako unibertsitateko historia irakaslea da eta esklabotzari buruzko *Ahantzuratik memoriara* liburuaren egilea ere bada. Axier Lopezek elkarrizketatu du eta gaurko gizartearen zimenduek esklabotzarekin dituzten harremanez mintzatu dira, baita erreparazioarako dauden bideez ere.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Trantsizio ekologikoaren izenean, bere ingurumena sakrifikatzen dabil Indonesia

Jenofa Berhokoirigoin

14 | PERTSONAIA | STEVE MENDIBE

"Amerikarra eta euskal herritarra naiz, baina, bihotzez, euskalduna"

Miel A. Elustondo

24 | GIZARTEA

Itoiz azpiko herrien erresistentziak 20 urte

Irati Irazusta

34 | HEZKUNTZA | ANDOINGO ONDARRETA

"Eman aukera bat herriko eskolari"

Estitxu Eizagirre

44 | KULTURA

"Idazketa lantzeko eskaintzak egon beharko luke, musika eskolen gisa"

Gorka Peñagarikano

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Manex Moreno, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA





ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Bizitzak

Galder Barbado eta Aitor Zelaia espetxeratu dituzte 2014 eta 2015ean inoiz gertatu ez ziren erasoak egiteko "armak gordetzeagatik". Ertzaintzak idatzi zuen sinesgaitza dirudien gazteen inguruko txostena. Ertzaintzak bidali zituen Espainiako Auzitegi Nazionalera, pasa den astean bertan euskal herritarrak torturatzeagatik ezaguna zen Manuel Sánchez Corbí guardia zibila saritu duen salbuespeneko epaitegi horretara. Eta azkenik, Ertzaintzak bidali ditu espetxera bi euskal herritarrak. Atxilotuen kamisetek "Euskal Herria aurrera" zioten eta gazteen lepoa heltzen zuen ertzainaren eskumuturrekoak "Blue Lives Matter" lelo ultraeskuindarra. Hemen ere, AEBetan bezala, herritarrak zaintzeko ardura dutenentzat bizitza guztiek ez dute berdin balio.

 ARITZ LOIOLA / FOKU  AXIER LOPEZ





Ibilgailuen isuriei muga atzeratzeko presio egin du Jaurlaritzak

URKO APAOLAZA AVILA

Europar Batasuneko industria ministroek erabaki garrantzitsua hartu zuten, automobilgintza industriari eta klima larrialdiari eragingo diona: Euro 7 araua indarrean jartzeko epea atzeratzeko dute, autoen kutsadura atmosferikoa murriztea helburu duena.

Ibilgailu arinen kasuan 2025. urte-tik 2027ra eta astunen kasuan 2027tik 2029ra malgutu dute epea. Horrek esan nahi du, 2034ko abenduaren 31ra arte saldu ahal izango direla Euro 7 araua betetzen duten autoak, eta horietako askok XXI. mendearen bigarren erdialdera arte jarraituko dutela errepideetan.

Automobilgintzako lobbyak presio handia egin du araua atzeratzeko, eta horrekin batera erakunde eta gobernuak ere bai. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapiak agerraldia egin du asteartean bertan, erabakia baloratzeko, eta aitortu du "aktibo" egon direla norabide horretan presioa egiten, Europako beste eskualde eta Espainiako Estatuko beste erkidego batzuekin batera.

"Nolabait, Europari aipatu diogu zer garrantzitsua den sektorea hainbat tokitan eta desindustrializazio bat eman

2034ko abenduaren 31ra arte saldu ahal izango dira Euro 7 araua betetzen duten autoak, eta horietako askok XXI. mendearen bigarren erdialdera arte jarraituko dute errepideetan

zitekeela; hori guretzat onartezina dela. Hor oso aktibo egon gara", esan du Tapiak.

Sailburuaren aburuz, "oreka konplikatu" da industria eta enplegua mantentzea eta isurketak murriztea; baina "teknologiaren eta ikerketaren laguntzarekin" biak lortu daitezkeela adierazi du: "Gutxiago kutsatuko duten automobilentzako bioerregaiak lortzeko bidelagunak dira".

Era berean, auto elektrikoentzako bateriak ekoizteko Basquevolt proiektua eta EAEn garatzen ari diren beste proiektu batzuk ere aipatu ditu Tapiak. ●

Sánchez Corbí guardia zibilarri Zilarrezko Gurutzea

IRATI IRAZUSTA JAUREGI

Torturengatik kondenatutako Sánchez Corbí guardia zibilarri Zilarrezko Gurutzea eman dio Espainiako Barne Ministerioak. Auzitegi Nazionalak Marlaska ministroa derrihortu du guardia zibila mailaz igotzera. Kargugabetu egin zuen 2018an, "konfiantza falta" zela eta. Sánchez Corbík errekurtsioa jarri zuen erabakiaren aurka, eta Auzitegi Nazionalak babestu egin du. Kepa Urrea etakidea torturatzeagatik 12 urteko espetxe zigorrera kondenatu zuten 1997an, baina Aznarren gobernuak indultua eman zion.

Marlaskak kargugabetu zuen garaian, Sánchez Corbí Guardia Zibileko Unitate Zentral Operatiboko burua zen, eta esan zuen unitate horretara bideratutako dirua izoztuta gelditu zela Pedro Sánchez Gobernura iritsi zenean. Marlaskak filtrazioa ez zuen begi onez ikusi, eta guardia zibila kargugabetu egin zuen, berarengan "konfiantza galdu" zuela argudiatuta.

Corbí erabakiaren aurkako helegitea jarri zuen Auzitegi Gorenean, baina ez zuen babesik lortu. Auzitegi Nazionalak, ordea, aurtengo maiatzean epaia atera du, esanez Barne Ministerioaren ebazpena ez dagoela "zuzenbidean oinarrituta". Horrez gain, Marlaska derrihortu du koronelari Guardia Zibilarren merezimenduaren ordenako Zilarrezko Gurutzea ematera; orain arte Gurutze Zuria zeukan, maila bat baxuagokoa.

Sánchez Corbí eta beste bi guardia zibil Kepa Urrea torturatzeagatik hamabi urte eta sei hilabeteko kartzela zigorrera kondenatu zituzten 1997an, baina José María Aznarrek 1999an indultatu egin zituen hirurak. Xabier Makazagak *Manual del Torturador español* liburuan Corbíri buruz honakoa idatzi zuen: "Teniente zen Kepa Urrea torturatu zenean, torturen epaiaren bitartean kapitain izendatu zuten eta indultua eman ziotenean komandante postura goratu zuten". Gerora, koronel izendatu zuten eta 2015ean UCOk buruzagi. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Ala inor ez



UXUE APAOLAZA LARREA

Asier Ezeizaren argazkia ikusi dut egunkarian. Xaxirena. Argazki batzuek horrela asaltatzen gaituzte. Ahalegin-
du naiz barrutik ateratzen, eta ezin dut. Ze saltsa horri buruz idaztea. Nor etsaituko zait. Baina ezin begiratzeari utzi.

Ezinezkoa da Xaxik pena ematea, pertsona domeazinekin zaila da gupidarik sortzea: izaera batzuek ez dute halakorik merezi, gupida horren aurka borrokan bizi izan dira, minari aurrez aurre begiratuta. Amorrua kutsatzen dit, eta horretan lagun dut. Baina ez dut aldarrikatze heroirik. Ez dut inon heroirik ikusten. Eta argazkiko herrikeria eta ni elkarri hozkaka ibiliko ginen duela urte batzuk (eta elkar hil daiteke elkar maitez ere). Baina gatazka ez zen berea bakarrik, gatazka nirea ere bazen, gatazka herri oso batena zen, gutxienez. Zergatik dago bakarrik epailearen aurrean.

Ardura penala indibiduala da. Eta nor lasaitzen du horrek. Norbaitek gainditu du hau? Bada norbait nire adinetik gora memoria anputatu gabe lasai lo egin dezakeenik? Gatazkaren ondorioak bakarka doaz, orainaldiaren zuntz hauskorrak gehiegi ez astintzeko bolumenean, festa irribarretsura ezin lotu. Eta norbaitek uste badu ez zuela inor hil, berak ez zuela zegoen indarkeriari indarkeria eransteko ezer egin ez zelako ETakidea, ez zelako polizia... ez diot sinesten. Benetan iruditzen bazitzaizkigun hain terribleak egiten genituen gauza batzuk, neurtu zer egin zenuen egin ez zitezen. Neurtu erabaki ziztrinen bat hartu zenuen. Benetan, nor da nahikoa errugabe gaur egun lasai bat merezi izateko? Zergatik nik jarrai dezaket alemana banintz bezala, eta Xaxik ez.

Amorrua sentitu dut Xaxiren argazkiari begira. Porrot izugarri baten sentsazioa geratu zait. Zergatik daude bakarrik. Zergatik ukatzen dugu ez iraganeko sufrimendua. Oraingoa. Ze ondorio terribleren gainean ari gara dantzan. Zenbat zauriren. Batzuetan ez dit ospatzen jarraitzeko gogorik ematen. Ez naiz alemana. Nola zen... denok ala inor ez. ●

EZ HANKA EZ BURU

 ADUR LARREA
 www.adurlarrea.com


Hezkuntza

Nafarroako haur eskola publikoak doakoak izango direla iragarri du Carlos Gimeno Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilariak. Datorren legealdiari begirako asmoa du. Euskara "sustatzen" jarraituko dutela gehitu du, baina D ereduko eskaintza "mantenduta".

Independentzia

Macronek autonomia eskaini dio Korsikari, Frantziako Errepublikaren barruan. Frantziako Konstituzioan Korsikaren izaera berezia jasoko luke artikulua batek. Presidenteak hezkuntzan korsikera bultzatzeko asmoa iragarri du, baina ez hizkuntza ofizial bihurtzeko.

Osasuna

Osasun sistema publikoaren defentsan manifestatzera deitu dute azaroaren 11n. Bilbon, Donostian eta Gasteizen egingo dituzte mobilizazioak osasungintza publikoaren aldeko herri plataformek. Osasungintzaren pribatizazioa salatu dute.

Barnetik



ULA IRURETAGOIENA

Urriko lehen astelehenean, Nazioarteko Arkitekturaren Eguna da, Nazioarteko Habitat Egunarekin batera. Bi egunen aldibereotasunak eguna markatzen du, arkitektura (giza) habitata eraikitzeko bidelagun baita. Horren aitzakian eta arkitektura suspertzeko helburuaz, urriko kultura programazioa arkitektura eta hirigintzarekin kutsatu ohi da, eta normalean arkitekto-profesionalen esparru itxiko guneen atea ireki egiten dira. Egunaren sinbolismoak ez du gorputzeko atal bat bera ere kilikatzen, baina badu interesik programatzen den ohiko aktibitateen planteamenduak: arkitekturaren tripak erakusten direla. Pribatutasun edo segurtasun arrazoiengatik bisitagarriak ez diren eraikinetan barneratzeko aukera zabaltzeak kuriositatea pizten du, edo jakin-mina ernalduta daiteke eraikina diseinatu duten egileen nahiak eta helburuak entzuteko aukerarekin. Arkitekturaren barneratzeko bi foku hauek posible egin dezakete egunero aurrez topatzen dugun eraikina desberdin ikustea, norbaitekin intimitate-enkontra baten ostean sentitzen dugunaren antzera. Zerbait aldatzen da.

Arkitekturaz inguraturik bizi gara, baina profesionalak salbu, begirada-tresna gutxi izaten ditu herritarrak arkitektura ulertzeko. Batez ere bi kritika iturri ditu eskuragarri: erabilgarria ote den erabiltzaile paperean dagoenean edo itsusia/ederra iruditzen ote zaion bisitari rola tokatzen zaionean. Arkitektura baten aurrean posizioa hartzeko funtzionaltasuna eta estetika guztiz zilegi diren arren, tramoiaren sartzeko kritikarako oinarri gehiago eskaintzen ahal dizkigu, kanpotik barnerako jauzia egiteko beta. Eraikitzeko bidean aurkitu diren zailtasunak, arautegi baten helburu desegokiak salbatzeko trikimailuak, espazio esperientzia jakin bat lortzeko asmoak, ikusten ez diren instalakuntzen sormen-soluzioak, xehetasun material batek ekar dezakeen kontakizuna... Guztiek osatzen dute profesioa, eraikinaren eraikuntza-lanak bukatzean espazioa bizi dutenena bada ere. ●



FOOTYCOMIMAGES OPENVERSE

Zein leku izan behar du futbolak eskolan?

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Ikurrek 7 urte ditu eta sentitzen du eskolan bakarrik geratzen ari dela, bere adineko gainerako mutilek futboleant jokatzen dutelako jolas-garaian, eta berak ez du futbola gustuko. Futbolak duen gehiegizko protagonismoari aurre egiteko estrategia bideratu nahi du ikastetxeak, eta gaia landu duten eskolen esperientziei begira jarri dira. “Baloirik gabeko eguna(k)” orokortu egin dira han-hemenka, alegia patio orduan ezin da baloiarekin jolastu egun horietan; jolastokia eraldatzeko proiektuetan ere, futbolzentrismoari aurre egitea izan ohi da helburuetako bat eta futbol-zelaiak eskola erdigunetik bazterrerara eramán izan dituzte adibidez, baina futbol zelai edo pistarik gabeko ikastetxerik zaila da irudikatzen Euskal Herrian. Azken finean, futbola mugatzeko ideia mahaiganeratzaren denean, erresistentziak ez dira gutxi.

Ikuraren ama Maiteren hitzei tiraka (izenak aldatu dizkiet), bada zer gogoetatu: “Jolas libre mugatu gabe, eskoletako patioetan gertatzen diren dinamiketan eragiteko gaitasuna dugula uste dut, eta hezitzaile eta irakasleei dinamika batzuk sustatu edota oztopatzea dagokiela: nola eragin, inor ez dadin baztertuta gelditu? Zer eskaini, neska-mutilek elkarrekin eta berdintasunez jolastu dezaten?”. Izan ere, mutil guztiei futbola gustatzea ezinezkoa dela abiapuntu hartuta, zergatik dabilta (ia) denak futboleant? Ze presio, mekanismo eta dinamika daude atzean?

“Arazoa ez da kirola bera, baizik eta kirol horrek gure gizartean duen esanahia, eta ondorioz, haurren artean sortzen duen dinamika. Edozein kirol ez da neutroa, gure gizartean txertatuta dago, eta balore eta konnotazio batzuk ditu atxikita. Futbolaren kasuan, eliteko eredu komertziala da haurrek imitatzen dutena, maskulinitateari eta lehiakortasunari oso lotua. Gure gizartean, mutikoa bazara, futboleant ona izateak ez dauka beste kirol batean ona izateak dituen konnotazio eta ondorio berdinak”, gehitu du Maitek. Ildo horretan, futbol trebeziari lotuta, “haurren arteko desoreka oso handia da, eta horrek haurren arteko botere harremanak eta bazterketak areagotzen ditu. Kirolaz modu parte-hartzaile eta hezitzailean gozatzeko, eta haurren artean harreman osasuntsuak eraikitzeko, garrantzitsua da kirol bakoitzak sortzen dituen dinamikak aztertzea, eta horrek dituen ondorioak baloratzea”.

Zein leku izan behar du futbolak eskolan? Nola sustatu bestelako jarduerak ludikoak eta aukera aniztasuna jolasetan? Bada zer hausnartu hezkuntza komunitateak. ●

38

udalerrri nafar udal hauteskundeetara deitu dituzte azaroaren 26an. Maiatzaren 28ko udal hauteskundeetatik udal gobernurik daude Nafarroako 38 herri, emaitzak baliogabetu zituztelako edo hautagairik aurkeztu ez zelako.

76.000

biztanleko Debabarrena bailaran, gizarte langile bakarra izango dute. Hala salatu dute osasun zerbitzu integratuko langileek.

36.525

tona elikagai zaborretara bota ziren iaz Nafarroan. Hala adierazi du Nafarroako Elikagaien Bankuak. Horren ifrentzua da, elikagaien hondakinak iaz %6,2 murriztu zirela.

“Gure gizarteak lehenbailehen desazkunde turistikorantz bideratzea premiazkoa da”

BIZILAGUNEKIN PLATAFORMA

Turistifikazioaren aurkako urria antolatu dute Donostian.

2023-09-26



“EUSKAL ESPETXE EREDUA GARATZEA BALDINTZATU DUTE AZPIEGITUREN GABEZIEK”

Espetxe politikaren eskumena bere gain hartu zuenetik bi urte bete direla-eta, balantzea egin du Eusko Jaurlaritzak.

2023-09-30

“Silviak tortura poliziala salatu zuen eta orain Jaurlaritzak haren aurkako kondena neurrigabea eskatzen du”

BIZKAIKO SOS ARRAZAKERIA

Jatorriz boliviarra den Getxoko emakume batek Ertzaintzaren eraso arrazista jasan zuela, emakumeak hori salatu zuela eta orain Jaurlaritzak, autoritatearen aurkako atentatua leporatuz, emakumearen aurkako zazpi urteko kartzela zigorra eskatzen duela kritikatu dute.

2023-09-26



Barruraino



DIANA FRANCO

Aurreko astean konturatu nintzen duckduckgo nabigatzaileak baidu batoitxo bat, nabigatzaileen irekita dituzun fitxa guztiak itxi eta datuak ezabatzen dituen. Oso bistakoa da botoia,ugar baten irudia, erraza ulertzeko, erraza azaltzeko.

Bazterkeria egoeran dauden pertsonen lanean gabiltzanok eremu digitaletako nondik norakoak euren bizitzetara hurbiltzeko, halakoak behar ditugu. Google eta bestelakoak ondo baitakite sistemetan eta bizitzetan barruraino sartzen. Bazterkeria egoeran dagoen pertsona askok ez du bereizten nabigatzailea eta bilatzailearen artean, nabigatzaileen ezarpenetan ez dakite ibiltzen, batzuek irakurtzen eta idazten ere ez dakite... Zelan sortu pertsona hauentzako hezkuntza digital kritikodun programak, gero euren kabuz dabiltzanean dituzten tresnak euren ezagutza eta gaitasunetara egokituta ez badaude? Barruraino sartuta dute kapitalismo digitala euren gailuetan.

Digitalizazioaren aurrean zaurgarrienak diren pertsonen euren bizitza merkatu dinamiken eta klaseen interresetatik babestuko dituzten tresnak behar dituzte. Horrek ez du esan nahi ezjakintasunean izan behar ditugunik pertsonak, edota dugun errealitatea ezin dutenik ulertu, baina erraztu behar dugu bidea, gure bizitzetan barruraino sartu diren teknologien estrategia bera jarraitu beharko genuke, pertsonentzako pribatutasuna eta segurtasuna zainitzeko bidea eskuragarriagoa izan dadin.

Digitalizazioak denbora gutxi darama gurekin, eta gizartean badago piztuta zenbait korporazioerikiko mesfidantza. Hasiera batean, erabilgarritasuna eta bytak ziren plataforma batetik bestera igaro nahi izateko amua, eta gaur egun, nire ustez, aurreko ezaugarri horiek gaitzuta, pribatutasuna eta segurtasuna modu gardenenean kudeatzea baimenduko duten zerbitzuak izango dira erakargarrienak. ●



EPA

Migrazio masiboa Panaman: krisia eta negozioa

AXIER LOPEZ

Amerikako Estatu Batuetara heltzeko bidean direnentzat Panamako Darien eskualdea da pasabide nagusietako bat. Oihanez eta aintzirez josita dago, Panama hegoaldean Kolonbiarekin egiten duen mugaldea hori. Ibilbide arriskutsua izanik ere, aurtan bide horretatik 400.000 pertsona baino gehiago pasa dira, inoizko zifrarik altuena, Panamako agintariak zabalduko datuen arabera. 2022an 248.000 pertsona erregistratu zituzten, eta 2021ean 133.000. Irailean 2.000 pertsona baino gehiago igaro ziren egunero zonalde horretatik.

Krisi humanitario honen erdian, Panamako agintarien erantzuna ez da Europan ezagutzen dugunaren oso bestelakoa: pobreaken aurkako jazarpena. AEBek, Kolonbiak eta Panamak akordioa sinatu zuten apirilean, "pertsonen legez kontrako mugimenduari amaiera emateko". Irailaren 8an, bere burua "sozialdemokratizat" duen Laurentino Corizoren gobernu panamarrak "deportazioak eta herritar irregularren kanporatzeak" areagotuko zituela iragarri zuen.

Darienera iristen diren pertsona gehienak Hego Amerikatik datoz. Gehiengoa Venezuelakoa da (250.000 baino gehiago), 48.000 inguru ekuatortarrak dira eta 13.000 kolonbiarrak, baina 27.000 asiarrak eta 7.000 afrikarrak baino gehiago ere erregistratu dituzte.

Datu ofizial horien arabera, Dariengo ibilbidea aurtan zeharkatu duten lau pertsonatik bat adingabea da. 2022an, ofizialki, 141 lagun hil ziren ibilbide horretan, baina eragile guztiek onartzen dute egiazko kopurua askoz handiagoa dela. Zonaldearen zailtasunagatik bizitza arriskuan jartzeaz gain, oihan eremu hori zeharkatzen dutenek bortxaketak, erasoak, lapurretak, estortsioak... jasaten dituzte.

Kapitalismoak dena merkantzia bilakatzeko gaitasuna duenez, pertsonen fluxu hori guztia ere negozio eta pagotxa bihurtu da, eta milioika dolar mugitzen ditu. Negozioa ez da Panaman hasten, ordea. "Lehen arazoa zena aukera bihurtu da", esan dio Fredy Marinek Julie Turkewitz *New York Times*-eko kazetariari. Marin txalupa enpresa baten jabea da eta AEBetako bidean diren migratzaileak garraiatzen ditu -40 dolar pertsonako-. Marin, gainera, Kolonbiako Necocli herriko alkategaia da eta migrazioaren "industria oparoa" zainduko duela agindu du. Panamarekiko mugaldea horretan eremu zabalak kontrolatzen dituen Clan del Golfo talde paramilitarrak urtean 30 milioi dolar irabazten ditu migrazio-negozioagatik, Kolonbiako presidente Gustavo Petrok adierazi duenez. Horren arabera, migratzaileek 80 dolar inguru ordaindu behar dizkiote talde armatuari pertsona bakoitzeko, Darienetik igarotzeko baimenaren truke. ●


Nola berotu den udako temperatura azken ehun urteetan

Zack Labe klimaren arloa ikertzen duen zientzialaria da Princentongo Unibertsitatean, AEBetan. Uda honetan munduko txoko guztietan egindako temperatura beroak ulertzeko GIF bat osatu du.

Azken ehun urteetan, ekaina, uztaila eta abuztuaren izandako temperaturen gorabeherak jarri ditu munduko mapa batean, urtez urte, beroagoak gorri eta hotzagoak urdinez.

Horretarako NASAren datuak erabili ditu Labek. Irudian ageri denez, urteek aurrera egin ahala gorria nagusitzen joaten da eta 2023ko mapan bereziki gorri ikus liteke Lurra planeta.

Temperatura anomaliak ekainetik abuztura:



TRANSIZIO EKOLOGIKOAREN IZENEAN, BERE INGURUMENA SAKRIFIKATZEN DABIL INDONESIA

Indonesiako hiriburu Jakartaen itsasoratzeari aurre egiteko eta jakartarreko nozituriko kutsadura arazoari erantzuteko, hiri erraldoi bat zerotik eraikitzen dabilta, Borneo oihan zabalean. Lekualdatzeak bideratu eta hiriburu berria bilakatuko da Nusantara izeneko sortu berria. Ekosistemaren suntsiketa eta CO2 isurketen emendio drastikoa ondorioztatu arren, “hiri ekologikotzat” dauka Gobernuak. Hori aski ez balitz, munduko gune industrial handienetarikoa eraikitzen dabil, gasaren eta petrolioaren inportazioekin bukatzeko. Hau ere “berdetzat” dauka.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Kapitalismo berdearen iruzurraren adibide esanguratsuenen artean ditugu Indonesiako Gobernuak abiatutako bi makroproiektu: “Nusantara hiri ekologikoa” eta “Kalimantan eskualdeko industria gune berdea”. Albo-kalte sozial eta ekologikoak hain dituzte handiak, non eta koherentzia-eza gailentzen zaien kalkulu matematikoei. Alta, “berde”, “ekologiko” eta “karbono-neutro” hitzez estaliz badoaz aitzina.

Nusantara hiriari dagokionez, 2019az geroztik aipatzen zuen xede hori Gobernuak eta 2022ko urtarrilaren 18an onartu zuen Parlamentuak. Jakartaen ordez, hau izanen dute hiriburu eta instituzio politiko, finantza-bulego, funtzionario eta jakartar, guztiak dira lekuz aldatuko. Jakartatik 1.200 kilometrotara, zabalagoa den Borneo irlaren erdian kokatu dute hiriburu berria, oihan baten erdian, 2.500 kilometro koadroko eremu natural batean. “Hiri ekologikoa” izateko gisan marraztua izan da: energia berriztagarriak, auto elektrikoak, guztia oinez egiteko gisan pentsatua, oihanaren %65 berriro landaturik... 2045erako karbono-neutro izateko –isurtze bezainbat xurgatze–.

Artxipelagoko Borneo irla zabalena aukeratu izanak badu bere garrantzia, hain zuzen, itsasoaren igoerak mehatxatzen duen herria delako Indonesia. Ur-

tero hamar bat zentimetro itsasoratzen zaizkio, irla ttipiak desagerrarazi eta herritarren egunerokoa zalantzan jarrita. Gundul eta Betet ugarteak irentsi berri ditu itsasoak eta beste lauk dute epe ertain laburrean zori bera: Salah Namu, Burung, Kramat eta Kalong-ek. Itsaso mailaren igotzea bezainbat irlaren apaltzea dute arazo. Ura gehiegi eta ilegalki ponpatzearen ondorioa da: lurpeko akuiferoak idortzen ditu eta eraikuntzen zamak matatzen ditu lurzoruak. Hori horrela, Jakarta urtero 10-15 zentimetro da itsasoratzen –25 zentimetro hiriaren iparraldea–.

Gainera, tsunami, sumendi, lurrikara eta uholde, mehatxaturik den hiria da, plaka tektonikoak elkar topatzen diren eremuan izanik. Mehatxu natural horiei giza aktibitateen kalteak ere gehitu behar zaizkie: 30 milioi jakartarreko eta bertako jardueren ondorioztaturiko kutsadura. Indonesiako herritarren eta jarduera ekonomikoen %55 bertan metaturik da eta hori horrela, munduko hiri kutsatuenetarikoen artean da.

ALDATU BEHARREAN, LARRIALDIARI EGOKITZAPENA

Makroegitasmo horren analisi interesgarria egin du *Nusantara: la nouvelle capitale Indonésienne, quand la fuite climatique se substitue à la lutte* (“Nusantara: Indonesiako hiriburu berria,

klimaren aldeko borrokari gailentzen zaiolarik klimaren aurkako ihesa”) artikulu zientifikoak. Ondorioztapen tamalgarrria egiten dute ikerleek: “Parean, ekonomikoki bideragarria den proiektua da, baina problematikoa da beste arlo guztietan eta argiki erakusten digu krisi sozial eta ekologikoaren parean herriek duten ezintasuna, baita interes falta ere. Klima beroketak herritar batzuei eragiten die zuzenean. Baina pentsamoldeak eta bizi moduak aldatu ordez, nahiago dute ezer ez aldatu eta berriz hasi beste leku batean. Arazoari bizkarra erakutsiz ihes egitea da [Jakarta] lekualdatzea”.

33.000 milioi dolarreko kostua du makroproiektuak eta %19 da bakarrik diru publikoaz estalirik –%81 nazioarteko eta lekuko multinazional eta interes pribatuen esku uzteak dakarren arriskua asumitzen du beraz Indonesiako presidente Joko Widodok–. “Aberrazio” bat herritarren arabera, jakinik “gehiegi gogoetatu gabeko” erabakia izan dela –ingurumenari eta bertako populazio autoktonoei eragin kalteak ez dira aipatzen Indonesiako Kontu Auzitegiak ekainean plazaraturiko txostenean–.

Nagusiki hiru kalte ekologiko deitoratzen ditu Walhi lekuko Gobernuak Kanpoko Erakundeak. Bata, klimari dagokionez, deforestazioak eta ekosistemaren nahaspilatzeak aldaketa



OIHAN TROPIKALA

2.500 kilometro koadroko hiri erraldoia Borneo oihan tropikalaren erdian eraikitzen ari dira, bertako bioaniztasuna eta ekosistemak xehatuz. Argazkian, Indonesiako presidentea hiriaren eraikuntza hasi aitzin, lekuari begira. (Argazkia: wikimedia)

klimatikoa areagotuko du, hain zuzen, CO2 isurketak emendatzeaz gain, CO2 isurketak xurgatzeko aukerak ttipituko dituelako. Biga, irlako fauna eta flora suntsituak izanen dira, eta hiru, eraikuntzek eta gerora bertako aktibitateek kutsadura handia eraginen dute. Hots, oinarrian dagoen klima larrialdia areagotu besterik ez du eginen aterabide gisa aurkezturiko "hiri berdeak".


Sozialki ere drama bat da Nusantara. Hasteko, Borneoko oihan horren erdian bizi den Balik herri autoktonoari lapurtu dizkietelako lurak, bi sosen truk eta hauturik eman gabe: "Joatea galdatzen digute, baina ez dakigu zein baldintzetan: ez da konpentsazio irizpide argirik", dio lekuko batek *Reporterre*-ko ka-

zetariari. Bestetik, 30 milioi jakartarrek ezingo dutelako lekuz aldatu. Gobernu-kideen inguruak, funtzionarioek -urtero 25.000 funtzionario dira bertaratuko 2024tik aitzina-, finantzariek eta gaitasun ekonomikoa dutenek, horiek bai... baina besteak? Zeinek egon beharko du Jakarta kutsatu eta mehatxatuan? Zeinek migratu beharko du beste norabait hala beharrez? Pobreenek.

MUNDUKO INDUSTRIAGUNE "BERDE" HANDIENA ERE MARTXAN

Krisi ekologiko globalaren aitzinean, paradigma aldaketarik ez bideratzeko hautuaren adibide dugu Kalimantaneko industriagunea ere. Hau ere papearen "berdea" eta "ekologikoa". 30.000

hektareako eremu natural batean eraikitzen dabilta. Inguruko hidroelektriko-, gas- eta eguzki-zentraletatik aterako den energia goi-teknologiatik "berdeak" bertan ekoizteko baliatuko dute -litio-ioizko bateriak, eguzki-panelak, eta beste-, teknologia horientzat beharrezkoak diren mineralak eta metalak bertatik erauziz -munduko nikel erreserba handiena duen herria da Indonesia, aluminioz ere aberats da...-. Energia berde gisa aurkeztu arren, ezagunak dira meategi eta makro-zentral horien kalte ekologikoak. Funtsean, esanguratsua dugu bertan inbertitzen dabiltzaneren zerrenda, hain justu, gasaren, petrolioaren eta ikatzaren sektoreko multinazionalak direlako. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Evil Eye

Steve Mendibe

'BASQUE' BEZAIN EUSKALDUN



AMERIKARRA ETA EUSKAL HERRITARRA NAIZ, BAINA, BIHOTZEZ, EUSKALDUNA



Udatiarrak alde eginik da Ea. Bakean. Halaxe gustatzen zaio Steve Mendibe Aroztegi, euskaraz bizi den herria, udakoek dakarten gaztelania arrotza gabe. Kalifornian jaioa, Boisen bizi, amerikarra bezainbat da euskalduna. Bi nazionalitateak ditu, bi erroldak... bihotz bat.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

[Eako kalean egin dugu hitzordua Steve Mendiberekin, baina zuzenean hartu, eta eraman gaitu etxera. Badu erakutsi nahi digunik: dokumentu bat, markoan sartua. 1915ekoa da, Steve Mendiveren aitaitari AEBetara joateko baimena ematen dion agiria. Eta hasi da kontari.]

Agiri honek baimena eman zion gure amaren aitari, Kandido Aroztegi Iturberi, Winemuccara (Nevadara) joateko, artzain, bere anaia zaharragoa zen Estebanekin batera lan egiteko han. 1915ean joan zen Kandido, hamabost urte zituela, eta betiko! Inoiz ez zen itzuli, bizian ez zituen

gurasoak, Frantzisko eta Feliziana, berriz ikusi. Gaitz erdi, anaiak han zituen! Hiru anaia izan ziren AEBetan: Pedro, Esteban eta Kandido. Pedro izan zen hara joaten lehena. Arrantxo batera joan zen, Kaliforniara, artzain. Gero, bigarren, Esteban joan zen. Hirugarren, gure amaren aita, Kandido. Baina Kandido hara joan zeneke, Pedro hila zen. 1910eko otsailean, McDermit-en (Nevada) arrantxo batetik bestera zihoala, bi zaldi eta txakurrarekin, elur ekaitzak harrapatu zuen mendian. Zaldi batek arrantxoraino joaten asmatu zuen; txakurrak ere bai; Pedrok ez: bertan izoztuta hil zen, hemeretzi urte zituela.

[Hori esanik, familiaren argazki zaharra erakutsi digu.]

Joakin -Eako barberoa zena-, Julio -hau Kubara joan zen-, Antonio, Esteban, Bizenta...

Emakume bakarra, zuen izeko Bizenta. Hura ere AEBetara joan zen?

Bai. Eatik Bilbora egin, eta aberats batzuen etxean lan egin zuen urte batean-edo. Gero, Kaliforniara joan zen, eta hantxe ezkondu, Ajangizko batekin. Haurdu gelditzean, gizonak hanka egin zion, izeko Bizenta bizialargun utzirik. Harrezkero, berak bakarrik hazi behar



Steve Mendibe Aroztegi

MARYSVILLE, KALIFORNIA, 1958



Euskal amerikarra, esan ohi denez. XX. mendeko haspenetan joan zitzaizkion arbasoak AEBetako mendebaldera, eta haien oinorde da. 1977an etorri zen lehen aldiz Euskal Herrira, Oñatira, euskara ikastera, eta harrezkero hemen da, joan-etorrian. Irakasle izana da, baina baita abokatu ere. Justu, udan Eara etorri eta egonaldi luzeak egin ahal izateko utzi zion lege-lanari. AEBetako euskal klubak biltzen dituen NABO erakundeko buru izendatu zuten 1990ean. *Basque* da han, euskalduna hemen: euskaldun izan ahal izateko ikasi zuen euskaraz.

izan zuen seme hura, Sacramenton. Ostatu txiki bat izan zuen, kapitolio inguruan. Jaten ematen zuen, oso goxo ere, eta ospea irabazi zuen. Inork baino lehen izan omen zuen argindarra etxean! Ostatuak ez zuen izenik ere, gauza txiki bat zen-eta: logela pare bat-edo izango zituen, eza-gunentzat. Gogoan dut izekok esaten zuela, besteak beste, Elizaga izeneko bat joaten zitzaiola. Lotarako ez zuen jende askorik hartzen, baina, jateko, berriz, hogeitak pertsona ere bai! Bazkalondoan, berriz, whisky tragoxka eskaintzen omen zien. Izekok berak kontatzen zuen.

Zuen etxeko migrazio historia 1915ean hasi zen, beraz.

Amaren partetik, bai. Aitaren partetik, besterik ere bada, baina ez daukat urteen edo garaiaeren berri. Aitaren aldetik Eako Karmelo Landa Mendibe idazlearen senide gara, lehengusu txikiak. Gure aita zen Prudentzio Mendibe Ibarluzea, eta, ama, berriz, Maria Luisa Aroztegi Muller! Amaren ama alemana izan zen, baina txipiroiak tintan gure amak egiten zituen! Horretarako, euskalduna izan behar! Hortaz, nik esaten dut erdi euskalduna naizela, baina nire itxura osorik da euskalduna. Eta hantxe bizi naiz, Idahoko South Villagen.

Eako ikurrin kasik bakarra zeure etxekoa duzu.

Batzokiak ere hantxe du ageri! Udan etortzen naizenean, zintzilikatu egiten dut. Joaterakoan, kendu. Eta ikurrina jartzen ez badut, haserretu egiten zaizkit herrikoak! Ohituta daude horretara: hemen nagoenean, ikurrina ipini behar dut. 23 urte daramatzat udan Eara etortzen, Dorre Bikiak bota zituzten urtean erosi nuen etxea, eta, etortzen naiz, ipintzen dut ikurrina, eta jendeak badaki hemen nagoela. Aurten, etorri, eta ikurrina zintzilikatzea ahaztu nuen. Handik egun batzuetara, jendeak ni kalean ikusi eta: "Eta ikurrina zer? Ez duzu ipini!". Horrela jakiten dute Eakoek -eta Ibarangeluko senideek!-, hemen naizela.

“Euskaldunak gara, eta harro gaude. Baina badira gorabeherak, ez da lehen bezala: hizkuntza galdu egin da. Baita hemen ere!”

Hogeitaka urte daramatzazu, beraz, Euskal Herrira etortzen...

Ez, gehiago! Lehenengo aldiz, 1977an etorri nintzen, baina ez Eara, Oñatira baizik. Boisen bazen Pat Bieter, oraingo alkatearen aita, oso euskaldunon zalea, eta euskarazko ikastaroa antolatu zuen Oñatin, Idahoko Estatu Unibertsitatearen bidez, eta halaxe etorri nintzen lehenengo aldiz Euskal Herrira. Hemeretzi urte nituen. AEBetako hainbat euskaldun etorri ginen, ez genekien euskaraz, baina ikasi nahi genuen.

Ordurako bazenuen euskararen berri batere?

Bai. Ni ez naiz Boisekoa (Idaho). Kalifornian jaio nintzen, Marysville herrian, Sacramento ondoan. Aitak eta aitaitak, amaren aldetik ari naiz, euskaraz egiten zioten bata besteari. Nik orduan kasurik ez nien egiten, jaramonik ez. Amama Bolibarkoa nuen, baina hura ere han bizi zen, Elkon (Nevada). Eta hil zenean-edo, Elko aldera joan zen gure familia, eta nik han euskaraz baizik ez nuen entzuten! Elkora joan eta hiru urtera, berriz, aita hil zitzaigun, eta akabo euskara nire inguruan, gure amak ez zekien-eta: esan dut, ama alemana nuen, Muller. Eta, horrela, buruan sartu zitzaidan euskaraz ikasi behar nuela. Eta Pat Bieterrek Oñatin ikastaro hura antolatu zuela jakin nuenean, etorri nintzen. Gogorra izan zen!

Gogorra?

Bai. Oñatitik Boiseran hegazkina izan banu, bueltan, hartuko nukeen! Hementz bertan nik, eta ez nekien euskaraz ez erdaraz. Oraindik ere ez dakit erdaraz ondo. Nola edo hala moldatzen naiz, baina besterik ez. Euskaraz, berriz, gero eta hobeto-edo: iaz, Zornotzako barne-tegian egon nintzen udako garaian, eta ia B2 titulua ere lortu nuen! Baina idazmen ariketa zaila da, horko ortografia-eta! Ni euskara batuaren aurrekoa naiz kasik!

Buruan sartu zitzaizun euskaraz ikasi behar zenuela...

Bai, eta ez dakit zergatik ere, baina horixe erabaki nuen. Anaia, esate baterako, oso euskalduna da, baina "bertako euskalduna", hangoa: Nevadakoa, Idaho-koa, Kaliforniakoa... Askok daki hango artzainen historiaz eta biziak. Nik gutxiago dakit horretaz, baina euskaraz ikasi dut, eta gero eta gehiago ikasi nahi dut. Egunero irakurtzen dut euskaraz.

Eta Oñatiko ikastaro hura eta gero?

Esate baterako, Iruñeko sanferminak! Han nintzen 1978an, Germán [Rodríguez] hil zutenean. Autoak sutan, eta nik: "Jai ederrak, gero!". Artean ez nekien Germán hil zutela. 1985ean, berriz, letratu nintzen garaian, oporretan hona etorri, eta Markinan nengoen, baserri batean. Goizeko ordu bietan, guardia zibilak etorri, eta paretaren kontra jarri ninduten. Guardia zibiletako batek ingeles perfektua hitz egiten zuen: bereziki ni galdekatzera etorri zen! Lau,

sei ordu egon ziren guardia zibilak baserrian. Monbar Hoteleko [1985, irailak 25, GALEk lau euskal errefuxiatu hil zituen] atentatuaren garaia zen, eta guardia zibilek hainbat miaketa egin zituzten han eta hemen.

Guardia zibiletako bat bereziki zu galdekatzera joan zen?

Bai, halaxe izan zen. Shoshoneko fiskal izan nintzen garaian, gustura deituko nukeen guardia zibil hura nire aurre-ra: hango [Idaho] Poliziak guardia zibil horrek niri egindakoa egitea nahiko nukeen! Gogoan grabatuta daukat guardia zibil haren irudia: haren ingeles perfektu hura, garbia, batere azenturik gabekoa. AEBetara itzuli eta, haserre, hemengo egoera salatu nuen *Idaho Statesmen* egunkarian.

Letratu ere izan zinen Idahoan?

Bai. Irakasle ikasketak egin nituen lehenengo, eta Zuzenbidea ikasi nuen gero. Irakasle lan egin naiz, eta, sasoi batean, baita [Idahoko] estatuaren abokatu izana ere; gero, barrutiko letratu izan nintzen, eta, hurrena, fiskal... Adibidez, Shoshoneko (Idaho) fiskal izan nintzen garaian, euskalduna nuen idazkaria, Sandy Berriotxo. Elorriokoa zuen aitaita, santuaren leinukoa. Baina fiskal lan hura ez zitzaidan gustatu, eta hona etorri nintzen.

Euskal Herrira?

Bai, Loiuko Lauro ikastolan ingelesa irakastera. Urte bat....Eta nire ikasle izandakoak han edo hemen, Ean-edo, Lekeition-edo, kalean topatzea gertatu zait. Jakina, 50 urteko jendea da, baina oraindik ezagutzen naute, eta nitaz oroitzapen ona dutela esaten didate... Ikastolako urte hura egin, eta Boise-ra itzuli nintzen. [Idahoko] Estatuaren abokatu izan nintzen zortzi urtez, baina konturatu nintzen denbora falta zitzaidala! Denbora, zertarako? Euskal Herrira etortzeko! Eta eskolara itzuli nintzen, oporretan hona etorri ahal izateko. 1994az gero hemen naiz urtero, udaro. Jubilatuz gero, berriz, hemen pasatzen ditut udako hilabete denak. Lehenago, abokatu lana egiten nuenean, adibidez, ezin nuen hilabete baino gehiago gelditu hemen.

AEBetako euskal klubak biltzen dituen NABO erakundeko buru zinen 1990ean...

Bai, 1992an utzi nion hango klubaren presidente izateari. 31 urte nituen buru izendatu nituenean, gazte! Hiru urte egin nituen karguan. Bateko nafarrak, beste baxenafarrak, bizkaitarrak... beti zen zer edo zer, baina orain ondo konpontzen gara denok. Gainera, han ere euskaldunak nahastu egin dira elkarren artean, Elkon batez ere: hantxe nahastu dira euskaldunak gehien. NABO eratu baino lehen ere, Elkon egiten zen euskal jai nagusia. Bertara jotzen zuten, Kaliforniatik joanda, San Frantziskoko euskaldunek, bere klika eta guzti. Badakizu, fanfarrea. Eta Idahotik, berriz, Oinkari dantza taldea. Elkon hasi ginen euskaldun batzuk eta besteak elkar ezagutzen.

Eusten diozue euskaltasunari?

Bai! Euskaldunak gara, eta harro gaude. Baina badira gorabeherak, ez da lehen bezala: hizkuntza galdu egin da. Baita hemen ere! Hona etortzen naizenean, euskaraz egiten dut beti, edonorekin. Hemengoek, berriz, zuek, euskaraz badakizue, eta ez duzue hitz egiten. Oraindik orain Helenaren [Barrene-tea] elkarrizketa irakurri dut ARGIAN [2837. zbkia], esanez Durangon ez dutela euskaraz hitz egiten. Nola liteke? Nik alderantziz: hona etortzen naizenean topera egiten dut euskaraz, edonorekin. Han [AEBak] askok ez dakite euskaraz, ez dira euskaldunak, dira *basque*.



Azken hitza

1949KO ARGAZKIA

"1949n egin da argazkia Sacramenton (Kalifornia). Hortxe dira anaia denak: Esteban, Antonio, Alejandro, Julio, Joakin eta gure aita Kandido. Ize-ko Bizentaren etxean egin da argazkia, baina izeko bera falta da! Aurten eman dit argazkia Aldeko baserriko lehengusuak: José Luis Bilbao Iturbe du izena, eta 89 urte ditu"

Basque?


Bai. Niretzat, euskalduna da euskaraz dakiena, euskaraz hitz egiten duena. Nire anaiak ez daki euskaraz: ez da euskalduna, da *basque*. Beharbada eztabaida gogorra izango dut pertsona batzuekin, baina horrela sentitzen dut nik: horregatik ikasi nuen euskaraz, euskalduna izateko. C1 titulua ateratzea ere pentsatu nuen, baina zaharregia naiz azterketa lan horietan hasteko. Orain nahikoa dut Boiseko museora joanda.

Boiseko museora?

Bai, hango euskal museoak antolatzen dituen euskara eskoletara. Ez dut ordenagailuz online ikasten ibili nahi. Pantaila ez zait gustatzen. Boiseko museoko goi mailan ari naiz, gorenekoan, zortzi ikasle gara, eta gehienak ez dira euskaldunak, baina ikaragarri dakite euskaraz! Ez direla euskaldunak esan dut, baina ez da horrela, ez dira *basque*, baina euskaldunak bai! Esaten dizut, nik horrela ikusten dut gauza. Baina neu ere, zer naiz, zuen iritzian? Amerikarra? Euskalduna? *Basque*? Hango eta hemengo agiriak ditut: ni naiz amerikarra eta euskal herritarra, baina, bihotzez, euskalduna. Bakoitzak erabakitzen du hori...

Hemen zinen 1977an, hemen zaitugu 1994az gero urtero... Zer diozu Euskal Herriaz?

Lehenbiziko aldiz etorri nintzenezan hemeretzi urte nituen, euskara ikasi eta parranda egin nuen: antzara festa Lekeition, Donostiako jaiak, bateko eta besteko inauteriak... Arrotza zitzaidan dena! Gure aitaita Kandidori Nevada egin zitzaion bezain arrotza iruditu zitzaidan niri Euskal Herria orduan. Baina orain ez, orain nire herria da hau



[Ea], nire herria da Euskal Herria. Ean eta Boisen nago erroldatuta, bi nazionalitateak dauzkat, eta, aurtan, hemen nengoenez, bozka ere eman dut, lehenengo aldiz, ze orain arte [Espainiako] hauteskunderik ez zait gertatu ni hemen egon izan naizen garaian. Argazki bat ere egin zidan lehengusinak aurtan, bozkatzen ari nintzela. Hilabeteak pasatu dira, eta oraindik ez dute presidentea aukeratu!

Horren berri ere baduzu, beraz.

Nazioarteko Politika ere ikasi nuen. Eta kontuz Espainiako eskuinarekin: PP eta Voxekin. Europa osoan ari da eskuina

indartzen. Eta AEBetan ere, kontuz. Estatuaren abokatua nintzenezan, Idaho, miliziak ikaragarriko jende pila zuen. Mehatxuak ere jaso nituen, eta mendira joan eta pistola hartu eta tiro-praktikak egin nituen. Eta inor etxera sartu izan balitzait, tiro egingo niokeen. Gure ama zena, orain bi urte hila, Gooding (Idaho) bizi zen. Autoa hartu eta Boiserara etortzen zen, gidariaren aulki azpian pistola txikitxo bat zuela. 85 urterekin!

Amerikako Estatu Batuetako arma kultura... AEBek gobernatzan dute mundua?

Ez. Hori ez da egia. Mundua ez dute AEBek gobernatzan: diruak gobernatzan du. Hortxe daude Arabia, Txina... Nik esango nuke ehun bat lagunek gobernatzan dutela mundua, aberats-aberatsak dira, eta denak ez dira AEBetakoak. Eta, seguru baino seguruago, ni ez naiz horietako bat. Kar, kar... Baliteke Bigarren Mundu Gerra amaitu, eta ondoko urteetan AEBak izatea munduko nagusi, baina gaur egun, ez. Eta, hala ere, toki guztietan zakurrak ortozik, AEBetan eta Euskal Herrian: mundu bat baino gehiago ikusiko dituzu leku guztietan.

Bazoaz atzera Boiserara... datorren urte arte, ezta?

Bai! Hau nire etxea da, pozik naiz hemen, lehengusu-lehengusinekin, eta Markinako eta Oñatiko lagunekin, eta Eako jendearekin. Pozik. Pozik etortzen naiz, baina joan ere pozik joaten naiz Boiserara, badakit-eta nahi dudanean etorri naitkeela, Ean etxea daukat-eta. Lehen, etxerik ez neukanean, oso triste joaten nintzen, ez nekien-eta noiz itzuliko nintzen. Orain ez, orain nire lur zatia daukat hemen, Boisekoa naiz, baina hemengo ere bai. ●

BABESLEA:





Ütopia bat nahi dizüt egin

Hezkuntza utopia bat nahi nizuke egin. Utopia bat izanen dena haurren gisakoa, izanen dena zalua, jostaria, boteretsua eta librezalea. Arboletara igoko den utopia batez ari naiz, bistan dena, gaurko euskal hezkuntzagintzak behar duenaren gisakoa; potxin-goetan putzu-putzu ariko dena nahi (eta behar!) adina, lohiez zikintzeaz izutuko ez dena eta lur zakarretan aldika mina hartuko duena ere. Hezkuntzagintza bat, jolas-lagunak kasik non-nahi eta kasik nora-nahikoak topatuko dituen plazaetan, karriketari, heziguneetan berdin.

Hezkuntza utopia bat, sakeletara bilduko dituenak baldosa estanpatu eta koloretako kristal pusketak, *Sugus* urdinaren paper bilgarria, lauzpaborts txapa makur, txokolatezko arrautza sorpresaren barruko zera horiztaren erdika bat, txikoria belarraren bi lore zimel (nahiz eta erran dioten ohatzean pixa egingen duela hortaz), harri politak, gauza inportanteak.

Horixe behar baitugu preziso; utopia bat hezkuntzarena. Utopia partekatu bat ahal dela, elkarrekin marrastan ahalko genukeena kasik osoki. Utopia eder egingarri bat, beltza zuriaren gainean zirrimarratutakoa, edo akaso, oraindik hobe, *Manley* margoen kolore bizi distirantez. More, berde eta gorrikaretan pintatutako utopia bat.

Gisa horretan, badut uste, premiarren larriaz ohartzeko garen behingoan, denok ikusteko moduan paratuko baitugu izan zitekeenaren esperantza,

Hezkuntza utopia bat izanen dena haurren gisakoa, izanen dena zalua, jostaria, boteretsua eta librezalea. Arboletara igoko den utopia batez ari naiz

atzentzen dugunaren eta gutiegi bulkatzen dugunaren potreta, alegia, gaur gaurkoz euskal hezkuntza ez denaren eta bai denaren argazkia, fotonuntaketa eta negatiboa, hara.

Utopia bat akaso Alexandra Kollontaik fite gertatzeko esperantzaz –48 urteren bueltan edo–, 1922an emandako horren gisakoa beharko duena izan. Beraz, amets eder bat non basoa salbatuko dugun teknologiaren aitzinamenduak jasangarritasunaren alde paratuz. Non elkar zaintza, edertasuna eta soiltasuna, irudimena, sexuaz haraindiko lan banaketa, kultura, sormena eta batzarrak izanen diren denonak. Non lan nekezaz, alienatzaileaz, aske biziko garen behingoagatik. Non kantan, jostetan, dantzan ariko garen gure iraultza izan dadin eta badelako. Non komunitateak, *komunen federazioak* (sic) (plural kasik



NORA SALBOTX ALEGRIA
MAISTRA

lagunkoi batez jokatzeko dut baitezpada, euskal “eragileria” eta “erakundetza” gogoan), gailenduko diren. Utopia bat non kosmosari begira hunkituko garen eta joandako denbora estrainio haiekin akordatzeko irri egingen dugun, denek... edo kasik denek.

Baina, kasu! Zeren utopia ez baita etorriko halako gobernu baten lege berri bakan baten abaroen, nahiz eta lege horrek inoiz adostasunetan izan denik eta zabalena lortuko balu ere (txaloak hala balitz). Utopia karriketari oinez egingen baita, ttipi-ttapa, lurra zapalduz, mugak zeharkatuz, hanka sartuz, baita ere. Azpitik goiti marraztutako hezkuntza utopia horrek zabalduko dizkigu, deusek ez bezala, zumardi handiak ez badira, bai sikiera xendra ttipiak, eta ideiak, asmoak, norabideak, kasik-adostasun berriak, garai –hauek bai– total berrietarako.

Hartan, utopia kantatzen eta egiten ari garela, akordatuko gara Jacques Rancièreren berdintasunaren axiomatika horrekin eta elkarri erranen diogu beti duela arrazoi emantzipatu nahi duen horrek eta emantzipazioaren unea beti-beti honaxeko haxe dela. Akaberan, utopia bat tarteko ere, ez bagina gai izanen elkar maitatzeko, izan dadila sikiera hezkuntzagintzaren inguruko amets sekretu izateari utzi diezaioten eta, denbora haboro galdu gabe, hezkuntza berri baten aldekoak mila kolorez dantza gaitzezen behingoan, bihotzetan, heziguneetan eta behar den bazter guztietan. ●

Tren bidaiak



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

Ikasturte honetan, lan tokia aldatu zait. Egunero, etxetik lehen baino urrunago joan behar dudalako, eta oro har autoa ahalik eta gutxien hartzera entseatzen naizelako, erabaki dut trenez egitea ikastetxerako bidea.

Lehendabiziko joan-etorritik harripatu ninduen tren unibertsoak.

Alde batetik, tren munduak gizar-tearen errealitateetik hurbilago egiten zaitu. Azpiegituren antolaketa tekniko eta administratiboak ezagutzeko plazera baduzu, sorpresaz sorpresa. Akitania Berriak kudeatzen dituen trenendako, txartela hala erosi behar duzula; SNCFaren ardurapean diren AHTrendako, hola. Halako goizez, trenak beranta izanen duela, bezperan egin konponketak ez duelako iraun; holako arratsalde, trena ez dela abiatuko, gidaria beste tren batean eskas den lankide baten ordezkatzera igorria dutelako... Egoera absurdoak irria zein haserrearekin har ditzakezula esplikatzen dizu kontrolatzaileak, jendetasun kutsua emanez makineria guztiari.

Bestaldetik, zentzugabekeria horietatik urrun eramaten zaitu tren munduak, irudimenezko mundura. Kaira heltzean, argitu gabeko goizean, bakarrik zaude, eta hasten zara asmatzen zer gertatuko zaizun eta nor ikusiko duzun ondoko minutuetan: gaua geltoki zoko batean pasatu duen etxegabeko batek kafea edateko doa galdeginen dizula; adingabeko afrikar ezkutu bat agertuko zaizula laguntza

Trena hartzean, ez zara
nehoiz abiatu zinen
bezal-bezalako heltzen.
Tren mundu errealak
eta irudimenezkoak
aldatzen zaituzte,
nahi ala ez

eske; bezperatik mozkorraldia bildu duen batek etxeakoak dei ditzakezun eskatuko dizula... Pittaka-pittaka, heldu dira zu bezalako langileak, begiak erdi eroriak, loak hartuak oraino, esku batez bizikletari, besteaz zaku bat edo biri datxezkiela.

Trena heltzen da, orduan. Gau beltza tutaz argitzen du, lehenik, eta laster bere presentzia burrunbatsuz bazterrak osoki betetzen. Barnean, hor daude jadanik zu baino goizago jaikiak, zoin lo, zoin musika entzuten ari, zoin irakurtzen, zoin ordenagailuz ala axotaz lanean. Tupustean, turrustan heldu zaizkizu irakurritako istorioak, eta bidaiariak bana-bana begiratuz, zaude hau ez ote den *Murder on the Orient Express*-eko eleberritik ateratako hiltzailea; beste hau, *Manhattan Transferre-*

tik jalgi izaki porrokatua; eta horrek, ez ote zuen *Dans le train*-eko bihotz ahuleko narratzailearen egitea; eta hura, preseski, *Juste avant la nuit*-ko emaztea, bere aitzinean eserita denaz bat-batean maiteminduko dena; eta bere gibelegoa, Londonen *The Road*-eko erromesa...

Trena hartzean, ez zara nehoiz abiatu zinen bezal-bezalako heltzen. Tren mundu errealak eta irudimenezkoak aldatzen zaituzte, nahi ala ez.

Frogatzat dauzkat oraino beste hiru obra literario. Lizardiren *Bultzileihotik*, lehenik, garaiko lirika hunkigarriarekin adierazten dizuna denbora-espazioan mugitzeak iharrausten dizula barneko intimitatea. Michel Butor-en *La Modification*, gero: narratzailea zuka ari den lehen testua omen da: irakurle posturatik jalgiaz zaitu, eta protagonistaren rola jantzarazten. Paristik Erromara zoaz, nobela horretan, eta hogeita bat orduz erabat kanbiatezen zaizkizu asmo sakonenak.

Urt Zubiaurre Otamendiren *Otzaurte* dut gogoan, azkenik (*Izenik gabeko lurra*): horretan ere, narratzaile-protagonista irakurlea da, zu zara, eta amesten duzu wifirik ez den geltokiraino eramanez zaituela trenak, Otzaurtera. Edo zuzenago errateko, "trena hartu eta galtzeko nahia" izanen duzu, sei orriz, zure bizi zorotik ihes egiteko.

Tren bidaiak, errealitatean zein fikzioan galtzeko bidaiak dira, biak betan, dudarik gabe. ●



ARKAITZ ZARRAGA
AZUMENDI
EUSKARA IRAKASEA

Guardiak behar ditugu

Santutxuko Karmelo ikastolako Haur Hezkuntzako umeok Santa Marta egoitzan ikasten genuen. Eskailera batzuen erdian zegoen gure ikastola txikia eta haiek igo eta errepidea gurutzatu behar izaten genuen Karmelo plazara joateko. Jolastorduan bertara joaten ginen umeak ilaran, binaka, eskutik helduta. Berdin itzultzean ere, baina errepidea pasatuta, ziztu bizian abiatzen ginen eskaileretan behera, itxita egoten zen ateraino. Orduan kolpeka hasten ginen atearen kontra: *“Abrid, abrid, que somos policias!”* (“Ireki, ireki, poliziak gara eta!”), barrutik norbaitek atea zabaldu arte. Gaur egun pentsaezina litzateke hori, ikastoletan zer erakusten ziguten eta... Baina inguruan genuen errealtatearen isla baino ez zen.


Ondoren, “ikastola berrira” joan ginen, gaur egun Karmela gizarte-etxe autogestionatua den horretara. Han *polizia eta lapurretara* jolasten ginen (*“polis y cacos”* auzoko beste umeentzat). Inork ez zuen polizia izan nahi. Berdin jolasten ginen *“a indios y vaqueros”*, eta gehienok indio!

Garai hartan Polizia grisez jantzita joaten zen; Guardia Zibila “berde piko-loz”. Bibotea zuten eta oso itxura eskasa. Euskararen aldeko mobilizazioetan agertzen ziren, borraz jo eta pilotak bota. Gehienok bagenuen gomazko pilotaren bat etxean. Oraindik gogoan daukat Olenztzerotan Santutxun kargatu eta harategi batean ezkutatu ginenekoa. Ume mokoak

ginen, baina gertutik ikusten genuen zer zen Polizia.

Orain indioengana joaten naiz urtero. Indigenak dira, ez indioak, lumarik eta arkurik ere ez dute eramaten, baina ni haiekin identifikatzen naiz oraindik ere. Eta orain konturatzen naiz haiengandik badugula zer ikasia. Kolonbiako nasek eta beste zenbait herrik Guardia Indigena dute, Kiwe tengak, herria eta lurraldea zaindu eta babesteko egitura, askotan talde armatu eta eskuineko gobernuen jomugan egon dena. Sarri saiatu dira Kiwe tengak defentsa taldeekin parekatzen, baina oso urruti daude horiengandik. Guardiak ez du egitura militarrik, ez dute armarik eta bertan umeak, helduak eta zaharrak daude, zaintza lanetan trebatuta eta horretan murgilduta. Euren arma bakarrak makila eta zapi gorri-berdea dira, baina nahikoak zaizkie herritarrei lagundu, ama lurra zaintzeko, lurraldea babesteko eta, beharrezkoa denean, gaizkileak atxilotzeko eta harmonizatze bidean ezartzeko.

Inolako poliziarik ez dela behar idatzi dute Ospa Eguna amaitzea erabaki dutenek. Poliziak beti zaindu dituela boteretsuak, eta arrazoi dute. Baina Polizia ez da kapitalisten kontu hutsa; gobernu komunistek ere izan dituzte. Guk behar duguna guardiak dira, baina ez zibilak, Kiwe tengak baizik, zaintza erdigunean jarriko dutenak. ●



EVA PEREZ-PONS
ANDRADE

Konfort egoeratik ateratzea

Duela hilabete bat, gurasoen etxeko armairuetako batean, zinta zahar batzuk aurkitu genituen, 1992 eta 1998 urte bitartekoak denak. Bideoetan ahizpa eta biak agertzen gara gehien bat, gurasoak gazte eta jada bizirik ez dauden hainbat senide. Oso harrigarria egin zitzaidan ama bere hiru hilabeteko haurrarekin ikustea, edo 8 urte nagusia goa den ahizpa ume zenean ikustea, ez baitut horrela ezagutu: txikia, berritsua eta nire atzetik etengabe, zaintzeko eta jolasteko prest. Garai haietatik, gauza asko aldatu dira. Nostalgikoek esango luketen bezala, denak zirudien polita-

goa lehen (kostatzen ari zait kapitalismoaren helduarekin egokitzea). Hala ere, oso harro nagoen aldaketa bat badago: ahizpa eta bion arteko komunikatzeko hizkuntza. Etxean beti egin izan digute gaztelaniaz, eta hori ez da aldatu. Baina ahizpa eta biok duela hamar urte inguru hartu genituen gure artean euskaraz komunikatzeko erabakia eta ardura. Ohitura apurketa hori ahalegina izan zen, konfort egoeratik ateratzea ahalegina den bezala; arraroa eta zaila hasieran, baina posiblea dena aldatzea eta denboran mantentzea eta disfrutatzea. ●

Diskurtso arriskutsua



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Euskal Herriko azken inkesta soziolinguistikoaren Nafarroako emaitzak argitaratzean ikasi genuen: 2011tik hona, Foru Komunitatean indartu egin da euskararen erabilera sustatzearen kontrako jarrera, eta ahuldu, berriz, aldekoena. Euskal txio herrian, jendea *ez da posible*-ka ikusirik, xaloxalo menturatu nuen azalpen bat: “Nafarroako soziologia aldatzen ari da emigrazioaren eraginez. Kanpotik etorriek, nagusiki, bat egiten dute historikoki euskararen aldera arrotasunean bizi eta -80ko hamarkadaz geroztik- hezi izan den populazioaren zati handiarekin. Gure natalitate ahulak gainerakoa egiten du”.

Erran banuen, erran nuen. Ez tien hartu ninduenak “diskurtso arriskutsutzat” jo zuen nire ekarpena. Bertzeren batek, iraina: “Arrazista zikina”.

Ez du ospe onik euskararen egoera eta emigrazioa ekuazio berean sartzeak. Ezta aldagai gisa ere. Ulertzekoa. Nahikoa zama ekartzen duenari orban gehiago eranstea ez da gizalegea.

Bistan dena, alferrikakoa da emigrazioaren kontra egotea. Gu aberatsak eta haiek pobreak diren bitartean etortzen segituko dute, gu kontra egon ala ez. Guk estatu bat eratu ala ez. Emigrazioak on egiten digu ekonomikoki eta sozialki.

Nafarroan legeriak,
erakunde nagusien
jarrerak eta gizartearen
sektore handi batek
etorkinei bidaltzen dieten
mezuan euskara traba
bat gehiago da haien
herritartze ekonomiko
eta sozial berrian


Ordainean -izan gaitetzen zintzo- maldatsua bilakatzen du euskararen biziberritzea.

EAEn berriki argitaratutako inkestak nabarmendu du hango etorkinek euskararen aldera duten jarrera ona. Hiru probintzietan, irakaskuntzak euskararen ezagutza unibertsala bermatzen du. Euskara (zerbait) ikasiko dute Bolivia-tik, Marokotik edo Bulgariatik etortzen direnen seme-alabek; ez dira oztopo izanen haien gurasoak.

Nafarroan, berriz, ez dago toki guztietan bermatua ez euskarazko ez euskararen irakaskuntza. Gainera, bertako betidaniko bizilagun aunitzek begi txarrez ikusten du euskararen garapena. Foru Komunitatean ez dugu oraingoz inkestarik. Ez dakigu etorkinek zehazki zer pentsatzen duten. Badakigu, aldiz, non matrikulatzen dituzten seme-alabak, eta ez ohi da D ereduan izaten. Batzuetan, eskaintzen ere ez zaielako. Bertzetan, aukeran nahiago izaten dutelako euskararik gabeko eredu.

Euskaltzaleok integraziorako tresna gisa saltzen diegu euskara. Nafarroan, ordea, legeriak, erakunde nagusien jarrerak eta gizartearen sektore handi batek etengabe bidaltzen dieten mezuan euskara traba bat gehiago da haien herritartze ekonomiko eta sozial berrian. Ez gintuzke hainbertze harritu behar ikuspegi hori gailentzeak gero eta gehiago diren etorri berrien artean.

Betidaniko nafarrak gureganatzeko soka-tiran irabazle gertatu gabe etorri zaizkigu nafar berriak. Balantza are gehiago desoreka ez dadin, betikoari eustea baino zerbait gehiago pentsatu beharko da noizbait. Kontuak hausnarketa behar du. Histerismorik gabe. Apriorismorik gabe. Antiojo ideologiko gehiegirik gabe. ●



Nafarroako
Bertsolari Txapelketa
2023

Final-laurdenak

IRURITA. Urriak 7, larunbata. 17:30ean, Gizarte Bilgunean

Saioa Alkaiza Guallar, Eneko Fernandez Maritxalar, Sarai Robles Vitas, Idoia Granizo Urabarrena, Ekain Alegre Gil eta Egoitz Gorosterrazu Elizagoien

Gai-jartzailea: Maialen Belarra Eneterreaga

VIANA. Urriak 14, larunbata. 17:30ean, Kultur Etxean

Julio Soto Ezkurdia, Xabat Illarregi Marzol, Ekhiñe Zapiain Arlegi, Patxi Castillo Graciarena, Urko Gartzia Aleman eta Aitor Irastortza Arrizubieta

Gai-jartzailea: Zigor Gartzia Arregi 'Zian'

UHARTE. Urriak 15, igandea. 17:30ean, Arte Garaikideko Zentroan

Joanes Illarregi Marzol, Xabier Silveira Etxeberria, Mikel Lasarte Cia, Julen Zelaia Iriarte, Beñat Astiz Isasi eta Eki Mateorena Zozaia

Gai-jartzailea: Ainhoa Larretxea Agirre

LEITZA. Urriak 21, larunbata. 17:30ean, Herri Aretoan

Eneko Lazkoz Martinez, Josu Sanjurjo Altzuri, Bittori Elizalde Soto, Endika Legarra Nuin, Saats Karasatorre Martinez eta Fernando Ziganda Urdanpilleta

Gai-jartzailea: Ander Aranburu Arriola

Antolatzailea

Laguntzailea



www.bertsotzale.eus

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian salgai

EMAKUME SOR TZAI LEAK PLAZARA



- ▶ **Iraiak 22/23/24**
EHAZE - Topaketa
- ▶ **Urriak 1** IGANDEA
12:00etan
Amaia Bono
Belarri prest
13:15etan
Kamikaz kolektiboa
Trola
- ▶ **Urriak 6** OSTIRALA
19:00etan
Askoa Etxebarrieta eta Sonia Estévez
Petxo, pito, palma (Flamenco konferentzia)
- ▶ **Urriak 7** LARUNBATA
19:00etan
Hanna Francesh Whelan, Eguzki Donnellan eta Marina Suarez
Oracle Motel
20:00etan
Jone Bengoa
Kabia
- ▶ **Urriak 8** IGANDEA
12:00etan
Sonia Estévez
Marrazki bizidunak bizi
13:00etan
Maria Oses eta Eider Beobide
Intsumisoena
- ▶ **Urriak 15** IGANDEA
18:00etan
Itziar Manero
Memoria
- ▶ **Urriak 27** OSTIRALA
19:00etan
Ainhoa Alberdi eta Jurdana Otxoa
Zapatak
20:00etan
Mairder Laso
Loa loa
- ▶ **Urriak 28** LARUNBATA
22:00etan
Miren Narbaiza "MICE"
Itziar Garaluce
Meteo
Mejillón tigre kolektiboa
Hitz esana
- ▶ **Urriak 29** IGANDEA
13:00etan
Tripak kolektiboa
Platea

NON
GARAION
Otaza auzoa
Ozaeta - Barrundia · Araba
627 119 096
garaionsorgingunea@gmail.com

ITOIZ AZPIKO HERRIEN ERRESISTENTZIAK HOGEI URTE BETE DITU

Hogei urte igaro dira Itoizko urtegia eraikitzeke zazpi herri eraitsi eta urpean ito zituztenetik. Herritarrek eta herritarrak ez zirenek, ordea, ez zuten besterik gabe onartu herrien hustuketa, eta gogor egin zuten bizitokien defentsa. Erresistentzia antolatua izan zen Itoitzekin Elkartasuna taldeko kideek aurrera eraman zutena.

 **IRATI IRAZUSTA**  **GARI BERASALUZE**

Itoizko urtegiaren aurkako borroka lurraren eta ingurumenaren aldeko ikur bilakatu zen XX. mendearen amaieran eta XXI.aren hasieran. Izena urpean duen herrietako batetik datorkio. Izan ere, urtegia eraikitzeke inguruko zazpi herri eraitsi eta urpean utzi zituzten. Itoitzekin batera, Orbaitz, Ezkai, Muniain, Gorritz, Artzi, Nagoreren zati handi bat eta Artozki herriak geratu ziren ur azpian.

Egun, Nafarroako urtegirik handiena da, Artze eta Longida ibarretan dagoena, eta Irati ibaiaren gainean du presa nagusia.

1985ean eman zuten proiektuaren berri, eta berehala sortu ziren haren kontrako iritziak. Urte horretan bertan, Itoizko Koordinakundea sortu zen, urtegia ez eraikitzeke helburuarekin.

1993an hasi zituzten Itoizko urtegia egiteko lanak, eta 2003rako presa

egina zegoen. Urte horretan hasi ziren aipatutako herriak husten. Herritarrek ez zieten, ordea, hondeamakinei bidea libre utzi. Gogor defendatu zituzten bizitokiak, bereziki Itoitz eta Artozki. Lehenengora ekainaren 16an iritsi ziren makinak, Foruzaingoarekin eta Guardia Zibilarekin batera. Dozenaka lagunek erresistentzia egin zuten, eta hiru egun behar izan zituzten guztiak kanporatu eta eraikinak behera botatzeko.

Herria husterak jakinarazitakoa baino egun bat lehenago agertu ziren, baina operazioak ez zituen ezustean harrapatu bizilagunak, makinak eta poliziak iristerako nor bere lekuan baitzegoen. Aurretik izan zen Nagoreren hustuketa, eta horrek lagundu zien aurreikusten Itoitzekoa nolakoa izango zen. Gainera, Guardia Zibila lehenagotik aritu zen herrian bueltaka, eta “antzematen zen berehala izango zela”, dio Dani Unziti herritarrak.

Bazekiten herria txikitu egingo zutela, eta aurretik atera zituzten zenbait ondare, esate baterako, elizako santuak edo hilerrietan zeuden senideen gorpuzkiak. “Hala ere, gure helburu nagusia ez zen gauzak herritik ateratzea, baizik eta ahalegintzea gu kanporatzea ahalik eta zailena izan zedin”. Hurrengo egunean jende gehiago zen Itoitzera gerturatzekoa, baina han zeudenak prest zeuden, bakoitza bere erresistentzia gunean.

Unzitik bere etxean ezkatututa igaro zituen erresistentziako hiru egunak. “Momentu latzak pasa genituen”. Itoitzekin Elkartasuna taldeko itoiztar bakarra zen, eta aurretik denbora asko pasa zuen erresistentzia prestatzen: erosketak egin, porlana eraman, autoan erresistentzia egingo zuen jendea ekarri... “Etxe barrutik aritu ginen lanean, haiek ez konturatzeke zertan ari ginen”.

ARTOZKIREN DEFENTSAN, BI ASTEZ

Irailaren 15ean erresistentzia Artozkira mugitu zen, eta haren defentsak bi aste iraun zituen, harik eta Foruzaingoak eta Guardia Zibilak bortizki hustu zuten arte.

Nafarroako Gobernuak esan zuenez, Artozkiko bizilagunek beren borondatez utzi zituzten etxeak. Ez zen horrela izan, ordea. Egia da Nafarroako Gobernuarekin irailaren 15ean etxeak uztea adostu zutela, hori zelako bide bakarra ondoren Nagoren eta Azparrenen lursailak erosi ahal izateko. Gobernuaren bertsioa gezurtatzeko asmoz, komunikatua sinatu zuten bizilagunek: “Artozkin bizi ginen sei familietako batek ere ez du akordio-rik egin Nafarroako Gobernuarekin. Familien ondasun guztiak bortxaz desjabetu dituzte”.

Nahiz eta familiek etxeak utzi behar izan zituzten, solidarioei eman zieten

“Gizartearen erantzuna sendoa izan zen, garai hartan jendea oso kontzientziatuta zegoen”

lekukoa. Huste agindua baino bi egun lehenago sartu ziren ekintzaileak etxetan, eta egun horietan familiak eta solidarioak elkarrekin egon ziren.

Julio Villanueva Itoitzekin Elkartasuna taldeko kidea zen garai hartan, bai-

na herriak hustu zituzten egunetan ez zen bertan egon. Izan ere, 1996an, beste zazpi kiderekin batera urtegiko kableak mozteagatik bilatze- eta harrapatze-agindupean zegoen. Ekintza horrekin hamar hilabetez eten zuten eraikuntza. Erresistentzia egunetan herrietan egon ez bazen ere, prestaketa lanetan han ibili zen. “Herrien erresistentziarako estrategia pentsatu genuen”.

HILABETEETAKO PRESTAKETAK

Solidarioek hilabeteak eman zituzten prestaketa lanetan, 2002 amaieran hasi baitziren. Lehenengo Artozkikoa prestatu zuten, nahiz eta Itoitz lehenago hustu zuten. Paretetan zuloak egin zituzten tutuak sartu eta bertan kateatu ahal izateko, itxiturak egin zituzten hormetan eta leihoetan, bunkerrak ere prestatu zituzten...





Hustuketa “muturreraino” eraman zutela dio Villanuevak. “Ekintzaileentzat oso arriskutsua izan zen: modu bortitzean hasi ziren pareta botatzen, eta harriak erortzen ziren euren gainera”.

Bitartekari batzuk izendatu zituzten Poliziaren eta erresistenteen arteko komunikazioa aurrera eramateko: “Bitartekariak esaten zieten pertsona batzuk ezkutuan zeudela, baina poliziek ez zuten kasurik egiten. Langileei esaten zieten sartzeko eta dena birrintzeko. Ezkutuan zeudenek atera egin behar izan zuten euren ezkutalekuetatik, arrisku bizian baitzeuden”. Bitartekariak ere behin baino gehiagotan jipoitu zituzten, Villanuevaren arabera.

“Gobernuari ez zitzaion axola hildakoren bat egotea”, dio Unzitik. Suhiltzaileen eta polizien arteko elkarrizketak entzun zituen bere gordelekuetik. “Poliziek egun batean bukatu nahi zuten hustuketa. Suhiltzaileek esan zieten ezinezkoa zela, gutxienez bi egun beharko zituztelako pertsonak erreskatatzeko”. Hala ere, poliziek agindu zieten lehenengo etxeak botatzeko eta pertsonak gero ateratzeko, baina suhiltzaileek planto egin zuten, eta hala esan zieten: “Orduan, egin zuek. Guk ez dugu horrelakorik egingo”. Suhiltzaileekin esker oneko agertu da itoiztarra.

“Aurrena urtegia eraiki zuten, eta gero asmatu zuten zertarako erabili”

“HUSTUKETA” IZATETIK “ERRESKATE” IZATERA

Poliziak bere interbentzioaren kalifikazioa ere aldatu egin zuen: hasieran herrien “hustuketa” zena, “erreskate” izendatu zuten gero. Villanuevak azaldu duenez, “erreskate batean erreskatatutako pertsonak hiltzen ahal dira, beraz, norbait larri zauritu edo hilez gero arrazoi hori eman zezaketen. Horrela, euren burua babesten zuten”. Suhiltzaileak ere horregatik gerturatu ziren, “erreskatea” zelako.

Itoizko aferak, Euskal Herrian ez ezik, nazioartean ere izena hartu zuen. Itoizko Koordinakundearen eta Itoi-

tzekin Elkartasuna taldearen ekintzek oihartzun handia izan zuten, esate baterako, kableak moztu eta argindarra eten zuten, errepide mozketak ere egin zituzten, eta bi emakume ekintzailek 54 makina hondatu zituzten. Bi solidarioek azpimarratu dute jendearen elkartasuna. “Gizartearen erantzuna sendoa izan zen, garai hartan jendea oso kontzientziatuta zegoen”.

Unzitiri galdetuta ea beren herria eta etxea txikitu ostean agintariak ezer eskaini zieten, hala erantzun du: “Eskaini? Beti eskaini digutena errepresioa izan da, eta gu saltzea, inolako eskubiderik gabe”. Villanuevak errepresioa “gordina” izan zela dio. Urtegiaren aurkako ekintzengatik, momentu batean hamaika pertsona egon ziren kartzelara sartzeko arriskuan. Lau pertsonak espetxea zapaldu zuten. “Itoizko solidarioen kolektiboko zati handi bat indargabetuta geunden, jendaurrean egiten ziren ekintzetan ezin genuen parte hartu, gu atxilotzeko agindua indarrean zegoelako. Hala eta guztiz, isilpean bazen ere, batzuk borrokan jarraitu genuen”.

Bistan da urtegiaren proiektua ez zutela aurrera eraman inguruko herrietako biztanleei mesede egiteko. Zertarako, ordea? “Diru-gosea zuten eraikuntza



enpresen mesedetan egin zen, eta klase politiko ustelak esku-eskura utzi zien”, Villanuevaren arabera. “Aurrena urtegia eraiki zuten, eta gero asmatu zuten zertarako erabili”. Hasieran Espainian indarrean zegoen Plan Hidrologikoaren planaren barruan zegoen proiektua, eta asmoa ura mediterraneo aldera eramatea zen. Plan hori bertan behera geratu zen, ordea. “Konturatu ziren ikaragarritzko urtegi bat zeukatela eta bertako ura ez zekitela nora bideratu. Orduan asmatu zuten Itoizko urtegitik abiatzen den Nafarroako ubidea”.

EGITARAUA

Urriaren 2tik 18ra

"Artozki Artezki" erakusketa, Iruñeko Geltokin

Urriaren 10ean

mahai-ingurua, Geltokin

Urriaren 20tik aurrera

"Artozki Artezki" erakusketa, Agoitzen

Urriaren 21ean

"Lurraren Defentsa Eguna", Agoitzen: ekitaldia, herri bazkaria eta kontzertuak

URTEURRENAREN HARIRA, EGITARAUA

Itoitz eta Artozki herrien erresistentzien 20. urteurrenaren harira, herrien defentsaren bueltan ibili ziren zenbait kide berriz elkartu dira, eta urrirako egitaraua presatatu dute. "Borroka eta memoria" uztartu nahi dituzte, Villanuevak dioenez: "Ez da ospakizun nostalgikoa izango, baizik eta borrokarako deia. Inoiz baino indartsuago antolatu eta borrokatu behar dugu lurraren alde". ●



NAFARROAKO UBIDEA

URREZKO ZILBOR-HESTE ITOGARRIA

Nafarroako erdialdera eta hegoaldera ura eramateko eraiki zen Itoizko urtegia: batez ere ureztatzeko ura, baina baita edateko ura eta ur industrialara ere. Eta hori Nafarroako Ubidearen bidez egin behar zen, zeinak 198 kilometroko eraikuntza erraldoi batekin, urtegia eta Erribera lotuko zituen. Hori zen hasierako plana, Nafarroako eta Espainiako gobernuek 1998an hitzartutako proiektuaren arabera.

 XABIER LETONA BITERI

Ubideak bi zati ditu: lehena, 98 kilometrokoa, Itoizko urtegitik Pitillaseraino doa eta abian da aspal-di. Aire zabalean eraiki ziren 60 kilometro, hamabost kilometro tuneletan eta 23 sifoietan. Hiru urtegi ditu eta bi adar: Añorbetik Mendigorriara bata, eta Tafalla eta Erriberri artean bestea. 22.300 hektareako ureztatze eremua du. Lanak 2011n bukatu ziren eta ondoren hastekoak ziren bigarren zatikoak. Baina orduko testuingurua ere ez zen makala, krisi ekonomikoak bere gogorrean astintzen zuen Nafarroa eta gobernua estu ari zen. Finantzazio arazoak egon baziren ere, gaur egunetik begiratuta pentsa liteke hori bazela, baina baita proiektua ongi aztertu gabe zegoela ere. Edozein kasutan, kontua da oraindik ez direla eraikitze lanekin hasi.

Bigarren fasea ez, baina UPNko Yolanda Barcinaren gobernua lehengo fasearen zabalkundea aurkeztu zuen ezustean, eta 2015eko hasieran hasi ziren lanak, 21 kilometroko ubidearekin Itoizko ura Ega eta Arga ibaien arroetara eramateko: Andosilla, Azagra, Berbinzana, Carcar, Falztes, Funes, Larraga, Lerin, Lodosa, Mendigorria, Miranda Arga, Oteitza, Azkoien, San Adrián eta Sesmako lurretan 15.200 hektarea ureztatu ahal izango dira. Jandantik ia amaituta dago. Hainbat lekutan,



Ubidearen lehenengo zatiaren irudi bat iazko suteetan hartutakoa.

alabaina, arazo handiak izan dira ohiko ureztatze sistemen eta berriaren artean, eta Lerinen, esaterako, 2014an bertako nekazari gehienek ezezko bozka eman zioten Nafarroako Ubideari. Carcaren ere ildo beretik jo zuen Ureztatze Bartzordeak.

Ubidearen bigarren zatiaren proiektuak 71,4 kilometro ditu, behin eta be-

rriro iragarri da lanen hasiera, eta María Chivite lehendakariaren esanetan lanak 2024an hasiko dira. Pitillasetik Ablitaseraino, Ebroren ezker-eskuin 21.000 hektarea lur ureztatu nahi ditu. Bigarren zatia hasiera batean aire zabalean egin behar zen, lehena moduan, baina azkenean lur azpian doazen altzairuzko hodiekin egingo da.



Nafarroako ubidea zatika

- Ubidearen lehen zatia, amaituta dago.
- Lehenengo fasearen zabalkundea, amaitzear dago.
- Bigarren zatia, ez da hasi.

Itoizko urtegiak eta Nafarroako Ubi-deak hastapenetik ekarri dituzte eztabaidak eta liskarrak, aldekoen ametsetan Nafarroako ekonomiaren garapenerako ezinbestekoak izango direlako, eta aurkakoen amesgaiztoan, proiektu suntsitzaileak eta ekonomikoki bideraezinak direlako, besteak beste.

Klima aldaketaren aroan bete-betean murgilduta gaudenean, proiektuaren akuilu izan diren UPNrentzat eta PSNrentzat, ubideak ahalbidetuko du gero eta urriagoa den ura Erriberaraino eraman ahal izatea. Aurkakoen aburuz, aldiz, ura gero eta eskasago den garaitan zaindu behar da bereziki ondasun preziatu hori, xahutu gabe, ubidearen kudeatzaileek beren praktiketarik –zenbat eta gehiago ureztatu, ura are eta merkeagoa– bultzatzen duten gisan. Areago, argudiatzen dutenez, dagoeneko ez da kudeaketa edo ikusmolde kontua soilik, arazo fisikoa ere bada, aurreikusitako lur guztia ureztatze-ko nahiko ur izango ez delako.

2044RAINO ORDAINTZEN

Wikipedian irakurri daiteke Itoizko urtegia eta Nafarroako Ubideak 1.200 milioi euroko aurrekontua dutela hamabost urteko inbertsioan. Askok da, baina gehiago ere izango da, ubidearen bigarren zatia egiten bada bederen, eta hala, orain arte Nafarroan eraiki den azpiegitura handi eta garestiena bihurtuko da.

Abian diren ubidearen bi zatiak itzalpeko bidesarien formularekin ordaindu dira –Pirinioetako autobidea eta Bidearen autobidea moduan–. Horren arabera, enpresa eraikitzaileek eraikuntzarako inbertsioa egiten dute eta foru gobernuak urtero ordaintzen die adostutako kopuru bat. 2021ean Nafarroako Kontuen Ganberak ubideaz argitara emandako txostenaren arabera, eraikuntza lanek 327,7 milioi euroko kostua izan dute, gainkos-

Eraikuntza lanek 327,7 milioi euroko kostua izan dute, gainkostuak 583 milioikoak izan dira, eta beraz, orain arte bi proiektuek 911,5 milioi euro irentsiko dituzte

tuak 583 milioikoak izan dira, eta beraz, orain arte bi proiektuek 911,5 milioi euro irentsiko dituzte, horietatik 700,7 milioi euro ordaindu gabe baitaude. Ubidearen lehen zatiak 2006tik 2032 arteko ordainketa epea du, eta zabalkundearenak 2017tik 2044rainokoa. Orduan itzuliko da azpiegituren kudeaketa foru gobernuaren eskuetara.

Dirutza horretan ez da kontuan hartzen 250 milioi euroko aurrekontua duen ubidearen bigarren zatia, baina aurrekariari so eginda, gutxienez biderkatuko dela pentsa liteke. Hori kontuan hartu gabe zati hori teknikoki askoz konplexuagoa dela, besteak beste ubideak bi autobide, Ebro, Aragoi eta Queiles ibaiak zeharkatu behar dituelako. Aurreikuspenen arabera, 250 milioi horien erdia CANASA enpresa eraikitzaile publikoak ordainduko luke (%60 Nafarroako Gobernuak eta beste %40 Espainiakoak) eta beste erdia etorkizuneko ureztatzaileek.

Baina Kontuen Ganberako datuen arabera, finantzazio hori horrela azaltzeak zerikusi gehiago du fantasiarekin errealitatearekin baino, orain arte kontsumitu den ur kopurua aurreikusitakoa baino askoz gutxiago izan baita: lehen zatian %18 gutxiago eta haren zabalkundearen %68 gutxiago, azken horretan bereziki lanen atzerapenagatik. Orain arte bost alditan berradostu dira emakidaren hitzarmenaren oinarriak eta, horien ondorioz, ureztatzaileen tarifak %50ean handitu dira. Horrek zalaparta ugari ekarri du laborarien eta uraren saltzaile den Aguacanasaren artean. Hainbat ikerketaren arabera, azpiegiturak ez du inondik inola beteko bere finantzazio plana, eta orain arte gisan, altxor publikoak berriz bereganatu beharko ditu hitzarmenaren arabera ez dagozkion kostuak.

Landaketei dagokienez, Bernardo Ciriza Lurralde Kohesiorako kontseilariak INTIAko datuak baliatuta 2020an esan zuenez, 2019ko kanpainan artoa izan zen ubideko lurretan gehien landatutakoa (%49,4). Ondoren, baratze-landaketak (%7,1), eguzki-lorea (%5,7), tomatea (%5), mahastia (%3,1), eta olibondoak (%2,7), besteak beste. INTIAren arabera, lehenengo zatian 51 produktu landatu dira eta zabalkundearen, 44. 2020an, halaber, uzta bikoitzak %15 izan zirela azpimarratu zuten.

1985ean iragarri zuen Itoizko urtegiaren proiektua Nafarroako Gobernuak. 2023an esposizio publikora atera da Nafarroako ubidearen bigarren zatia, eta 2044an egingo zaio lehenengo zatiaren zabalkundearen azken ordainketa –itzalpeko bidesaria– CANASARI. Itoizko urtegi-ko ur tanta preziatu eta garesti horrek oraindik bidaia luzea du Ablitaseraino. ●



“Euskal Herria ere nabarmentzen da esklabotzari buruzko memoria-politika ezagatik”

Martín Rodrigo y Alharilla

Nazio inperialistetan familia jakin batzuk izugarri aberastu eta elite ekonomiko berriak sortu zituen munduko sistema kolonial eta esklabistak. Aldi berean, kontinente oso bateko biztanleria erdira murriztu zuen: Afrika. Mundua errotik aldarazi zuen, eta egun ere indarrean dagoen arraza-ordenaren arabera eratu: lehen eta hirugarren munduko pertsonak. 500 urte geroago, prozesu historiko luze horrek oroi-

menik eza du aliatu nagusi. Horri heldu nahi dio *Del olvido a la memoria. La esclavitud en la España Contemporánea* (Ahanzturatik memoriara. Esklabotza Espainia Garaikidean) liburuak. Pompeu Fabra unibertsitateko Historia Garaikideko irakasleak 2022an argitaratutako lana aitzakiatzat hartu dugu Katalunian eta Euskal Herrian oso presente dagoen ondare esklabista deseroso horri buruz hitz egiteko.

 AXIER LOPEZ

Argitaratu duzun azken artikuluan Miguel Primo de Riveraz hitz egiten duzu. Falangearen sortzailearen aitak esklabotzarekin zuen harremanaz, estatu-kolpea eman zuenetik 100 urte bete direnean, hain zuzen.

Kasualitatea da, oraintsu aurkitu baitut. Baina garrantzitsuena, horrelako kasu puntualetatik haratago, zera da: egungo Espainiako eliteen zati handi batek esklabotza kolonialarekin lotura zuzena du. Esklabo jabeak ala trafikatzailak izan ziren haien arbasoak. Hori ez da kasualitatea. Mundu esklabista hori oso lagungarria izan zen familia askorentzat gizartean gora egiteko, eta familia horietako batzuk oraindik oso aberatsak dira edota botere guneetan daude.

Inork ez du bere arbasoek egindakoaren ardura, baina ulertu behar da, neurri batean, gure arbasoek egindakoagatik gaudela gauden tokian eta egoeran.

Alegia, gu geu gara, gehi dakargun motxila.

Horixe. Azpimarratzekoa da Espainiako burgesiaren eta elite politiko eta militarren eraketa lotuta dagoela iragan kolonial eta esklabista horrekin.

Laster urriaren 12a helduko da, beste nazio batzuen azpiratzean oinarritutako espainiar festa nazionala, eta, beraz, 350 urte baino gehiago iraun duen sistema esklabista globalaren hasieran du jatorria.

Ez dago inperialik esklaburik gabe. Esklabotzari buruzko memoriarik eta memoria-politikarik ez da, eta kolonialismoari dagokionez beste hainbeste. Ez da Espainiako kasua bakarrik, baina oso espainiarra da gaia.

Azken urteotan María Elvira Roca Barearen *Imperiofobia* gisako liburuak argitaratu dira. Egilea ez da historialaria lanbidez, baina Espainiako "iragan loriatsu" inperiala aldarrikatzen du. Salmenta arrakastatsua izan da, oihartzun handia izan du komunikabideetan eta erakunde publikoetan, bere argudioei bozgorailua eskaini diete. Helburu politiko argia du: akritikoki nekez onar daitkeen iragan koloniala legitimatzea. Eta horren ondorioz, adibidez, Nacho Cano



ESTHER CHICA

musikariak esan berri du Colón Ameriketara heldu zelako, Hitlerrek ez zuela Bigarren Mundu Gerra irabazi.

Bestalde, beste autore batzuek, Edgar Straehle edo José Luis Villacañasen *Imperiofilia* liburua kasu, zalantzan jarri dituzte "espainiar kolonialismoa ez zela hain txarra izan" esateko egile horrek erabiltzen dituen argudioak eta gertaerak.

Beste herrialde inperialista batzuekin alderatuta, Espainia bereizten duena da esklabismoari eta kolonialismoari buruzko memoria publiko eta kolektiborik eza.

Hori horrela da. UNESCOk esklabo-trafikoaren eta esklabotzaren biktimak gogoratzeko lehen eguna ezarri zuen 1997an. Nazio Batuen Batzar Nagusiak ere ezarri zuen 2006an. Bada, egun horiek ez dira inoiz Espainian ospatu. Beste herrialde batzuetan autore askok kritikatzeko du oroimen egun horien izaera, baina Espainiako Estatuan hori ere ezin da egin, ez baitute ezer egiten, Portugalen bezalaxe.

Namibiako herri hereroaren genozidioa aitortu du Alemaniak, Mendebaldeko Europako museo batzuk Beningo brontze ospetsuak itzultzen ari dira, Herbehereetako erregeak berak barkamena eskatu du... elementu sinboliko hutsak dira, baina hemen ez da horrelakorik.

AEBetan unibertsitateek ikasketak finantzatu dituzte unibertsitateek beraiek sistema esklabistan izan duten inplikazioa ezagutzeko. Kasu batzuetan ondorioztatu dute, baietz, parte izan zirela eta horrek eragin du esklabo bihurtutako pertsonen ondorengoentzat beka-programak sortzea.

Azken urteotan, aldiz, gaiari buruzko lanak ugariagoak dira.

Esklaboen trafikoan eta ekonomia esklabistetan Espainiak izan duen parte-hartzearen ezagutza handitu egin da historialarien lanari esker. Dibulgazioaldizkarien eta prentsaren bidez, oro har, gaiak herritarrengana heldu dira,

eta orain duela 10 edo 15 urte baino sentsibilitate handiagoa dago, sektore batzuetan behintzat.

Baina, aldiz, erakunde publikoak dira uzkurrenak, udaletan, autonomia-erkidegoetan, zein estatu mailan. Ez dira gai izan memoria-politiken beharrari heltzeko.

Euskal Herria eta Katalunia. Gai honetan, salbuespena al gara zerbaitetan?

Katalunian ekintza txiki batzuk egin dira, baina oso lotsatiak.

Euskal Herrian, abiapuntua okerra goa da. Oscar Álvarez Gilak liburuan dioen bezala, abiapuntua da Euskal Herrian ez dela inoiz esklabotzarik egon, eta, beraz, euskaldunek ez zutela inoiz inor esklabo bihurtu. Errealitatea da, ordea, euskaldunak, hala nola katalanak, andaluziarrak, kantabriarrak... Espainiako monarkiaren menpeko herri oro esklaboen trafikoan eta esklabotza kolonialean inplikaturik egon zela maila batean ala bestean. Eta bai, Euskal He-

rria ere nabarmentzen da esklabotzari buruzko memoria-politika ezagatik. Areago, berriki Elkanoren mendeurrena izan da, eta Gaztelaren hedapen inperialerako lan egin zuen pertsonaia hori erreibindikatu dute

Badirudi pertsonaia horien "alde atsegina" nabarmentzea gustatzen zaigula: eskolak edo egoitzak sortzeko herrian utzi zuten dirua, edo baten gaitasun teknikoa (estratega, nabigatzailea...), edo bestearen "espiritu ekintzailea", ala besterik gabe, "indiano" gisa agertzen zaizkigu. Historia baino gehiago, sustapena dirudi.

Begira, Katalunian Indianoen Azokak daude. Eta sintomatikoa da horietako gehienak udaletako turismo sailetik bideratzen direla, eta ez kulturatik, adibidez. Ikuspegia begi-bistakoa da. Asteburu batez hurbileko turismoa erakartzeko aitzakia dira. Eta horietan gutxien axola duena ezagutza bera da.

Oro har, pertsonaia horietako askok lan filantropikoak, ongintzakoak egin zituzten. Historiaren zati hori, jakina, aztertu eta ezagutu egin behar da, eragina izan zuelako. Baina "beste aldea" ezkutatu edo gutxietsi egiten da. Horregatik da liburuaren izenburua "Ahanzuratik memoriara", kasu batzuetan kontzienteki ahazten delako eta beste batzuetan, ez dutelako azaldu nahi gertatutakoa eta, beraz, ez da jendearengana iristen.

Zuk, bereziki, esklabista katalanak landu dituzu, baina euskal pertsonaia ere izan dituzu aztergai, Lekeitioko goytisolotarrak kasu.

Esklavo trafikoan euskaldun askok hartu zuen parte, gehiengoak Amerikatik egin zuen. Mendexan jaiotako Pedro Nicolas Txopitea modukoak. Bera izan zen esklabista eta esklavo trafikatzailerik handiena Txileko Santiagon. Eta begira, bere alaba Dorotea de Chopiteak "emakume beneragarri" gisa izendatzeko beatifikazio prozesua irekia du Vatikanon, zer eta aitarengandik jaso zuen diru asko ongintza-lanetan inbertitu zuelako. Kubatik Afrikara merkataria espainiar batek zuzenean eraman zuen lehen ontzia Sebastian de Lasa izeneko gipuzkoarrarena izan zen, 1792an. XVII. mendeko trafikatzailerik handi bat Mutrikuko Irarragorri izan zen. Donostiako Patricio Satrustegi Kuban aberastu zen, Comillaseko Markes negreroaren bazki-



Esklabotzaren aurkako memoriale AEBetako Alabaman.

de zela. Jakina, Julian Zulueta ezin aipatu gabe utzi... Zerrenda luzea da.

Antonio López Comillaseko Markesa aipatu duzula, bere omenez Bartzelonan zuen estatua eraitsi zuten 2018ko martxoan. Esklabotzarekin harremana izateagatik, kasu bakarra Espainiako Estatu osoan. Zuk pertsonaiaz egin zenuen ikerketak eragina izango zuen...

1936ko abuztuan anarkistek lehen aldiz bota zuten. Herritarren artean beti izan da ezkutuko memoria bat haren gainean, enparantza horri negrero plaza deitzen zitzaion, adibidez. Nolanahi ere, Antonio López buruz egin nuen lanak horixe berretsi baino ez zuen egin: ez zela asmakuntza edo mito bat, baizik eta pertsona hori benetan esklavo trafikoan aritu zela.

Estatua zegoen plazak Idrissa Diallo du izena egun, gazte ginear baten omenez. Hona migratu eta Poliziak atxilotu ondoren, CIE batean hil zena. "Itxi ditzagun CIEak" kanpainako jendearen lanari esker lortu zen izen hori jartzea.

Dena den, Bartzelonako Udala au-

“ ”

Ezin da Euskal Herria edo Katalunia ulertu haien iragan kolonial eta esklabistatik gabe

sarta izan zen ekintza horretan, baina, aldi berean, oso lotsati jokatu du beste batzuetan. Adibidez, esklabotza kolonialaren historian, Lópezen estatuak baino garrantzi handiagoa du Xifré kaleak. Josep Xifré, Areyns de Marren jaioa, larrua lantzearen negozioarekin izugarri aberats egin zen Habanan. Esklavoak erabili zituen, baina ez hori bakarrik, hamarkada batzuk geroago bere ondasunak heredatu zituen bilobak ere esklavoak zeuzkan haren menpe. Hala eta guztiz ere, Xifréren omenezko kalea Bartzelonan dago oraindik.

Iragan kolonialarekiko ikuspegi kritikoen aurka, beti agertzen da



orainkeria, presentismoa. Hau da, ezin dugula iraganari egungo begiekin begiratu, ezta kritikatu ere. Zuk, zer begi dituzu?

Hori argudio faltsua da. Esklabotzari dagokionez, esklabo bihurtutako pertsonak dauden unetik bertatik esklabotza zalantzan jartzen duten pertsonak ere badaude. Grezia Klasikoan, gure aroa baino 500 urte lehenago, Aristotelesek berak, esklabotzarekin ados zegoenak, onartu zuen bazirela horren aurka zeudenak.

XVI. mendetik aurrera, Afrikaren eta Amerikaren arteko esklabo trafikoa zuzena hasi zenetik, gaitzespena erakutsi zuten pertsona batzuek. XVIII. mendearen amaieratik abolizionismoa antolatuta dago: Londresko Elkarte Abolizionista, Beltzen Lagunen Elkarte Parisen, 1810ean Cadizeko Konstituzioari buruzko eztabaidetan proposamen abolizionistak daude...

Orainkeria "ordaintzaile txarraren" argudioa da. Begirada erreazionarioaren ezintasuna islatzen duen aitzakia da. Ikusmolde kontserbadorea da, baina bere burua mozorrotzen saiatzen da gainerakoei presentismoa leporatuz.

Salerosketa eta eskulan esklaboaren esplotazioaren eta XIX. mendeko burgesia katalanaren etorkizuneko oparotasunaren arteko harremanaz hitz egin duzue liburuan. Prozesu hori barik, uler dezakegu zer diren egungo gizarteak?

Ez, argi dago ezetz, ez Katalunian, ez Euskal Herrian, ez Madrilan... Adibidez, hirien osakerari erreparatzea besterik ez dago. Nik gehiago ezagutzen dut Bartzelonako kasua. Eixample, Zabalgunea, eraiki zuten Kuban Hamar Urteko Gerra hasi zenean. Orduan, kapital-lekualdaketa asko izan zen Kubatik kanpora, eta dirudun horietako batzuk Bartzelonara etorri ziren. Kausa-ondorio erlazioa dago. Egungo Bartzelona, Zabalguneko Bartzelona, ez da errealtate kolonialik gabe ulertzen.

Euskal Herriko hiri batzuetan antzeko ariketa eginez gero, prozesu antzekoa ikusiko genuke. Orduko diruarekin ordaindutako higiezinak hor daude. Gau egun ezin ditugu gure gizarteak ulertu iragan kolonial eta esklabista hori kontuan hartu gabe.

Esklaboen salerosketa gizateriaren aurkako krimentzat kondenatu du NBK, eta horrek dakar egia, justizia eta erreparazioaren printzipioak aplikatzea. Baina, zer da erreparazioa gai honetan?

Bi maila daude: sinbolikoa eta materiala. Erreparazio sinbolikoek balioa dute, gizateriaren aurkako krimena izan zela hedatzen laguntzen dutelako. Bada horrelako aitortpen sinbolikoak kritikatzeko dituenik, esanez europar gizon zuriak bere burua barkatzeko egiten direla. Nik ez dut horrela ikusten.

Horrez gain, politika materialak daude. Adibidez, iragan hori hobeto ezagutzeko aukera emango diguten ikerketa-proiektuak finantzatzea, iragan horren berri ematea ahalbidetuko duten hezkuntza-proiektuak diruz laguntzea, dibulgazioa sustatuko duten oroimenerako elementuak ezartzea, beka-politikak...

Errege-erregina Katolikoaren garaian kanporatu zituzten sefardien ondorengoek espainiar nazionalitatea eska dezakete duela urte batzuetatik hona. Hori memoria-politikei lotutako elementua da, nahiz eta horrela ez adierazi. Orain akats gisa ikusten duguna konpontzeko borondatea adierazten du neurri batean. Orduan, zergatik ez

eman herritartasuna Espainiak legaliki esklabo bihurtutako pertsonen ondorengoei? Espainiako monarkiaren orduko legeek hala zioten. Beraz, zergatik, ez?

Kubara itzulita, gaur egun nahiko erraza da kubatarrentzat espainiar herritartasuna eskatzea, aiton-amon espainiarrik dutela frogatuz gero. Baina noski, horiek zuriak dira. Beltzek ezin dute lege hori baliatu. Bidegabekeria da. Arlo horretan erreparazioarako bide posible bat dago. Jakin badakit hori Pandoraren Kutxa irekitzea dela, baina horrela ikusten dut.

Achille Mbembe historialari kamerundarrak dio iraganeko bidegabekeriak ez direla iraungitzen konpontzen ez badira.

CARICOMek, Karibeko estatuen komunitateak –gehienak britainiarren kolonia ohiak izandakoak– Britainia Handiari planteatu dio bere zor historiko koloniala aitortzea eta, beraz, egungo haien zor ekonomikoa barkatzea.

Zorrek barkatzea, erreparazioarako programak, aurrekontu publikoak sustatutako memoriak... bide onak dira. Gai horiek eztabaidagai dira hemendik kanpo, baina ez hemen. ●

Mitxelena
MEKANIZATUAK

Ezlagi industrialdea 21, HERNANI | 943 55 25 12 - 16
info@talleresmitxelena.eus | www.talleresmitxelena.eus

“”

“EMAN AUKERA BAT HERRIKO ESKOLARI”

ANDOINGO ONDARRETA



Andoaingo Ondarreta Herri Eskola ezagutzen al duzu? Herri erdi-erdian dagoen hori? Nirekin batera sarrerako atea zeharkatzen baduzu, patioan topo egingo duzu eskola publiko honetako 201 ikasleekin, guztien artean 24 jatorri eta 17 hizkuntza batzen dituztenekin. Barneratuko gara segregazioari aurre egiteko Jaurilaritzak martxan jarri berri duen matrikulazio dekretuaren pasilloetan; iritsiko gara hormak administrazioaren hitzak bezain zuriak dituen gela horietako batera eta bertan lasai eseri gaitezke etxetik euskaldunak diren umeek hutsik utzi dituzten aulkietan. Goazen. "Herri mailako arazo" honi buruz hitz egiteko gogotsu daude bertako kideak.

 **ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA**  **IBAI ARRIETA**

Dagoeneko ghettoa gara" kokatu du gaia konplexurik gabe Henar Arranz gurasoak. Bera Espainiako migranteen alaba da, Andoainen jaioa eta ikastolan ikasitakoa, eta egun bere seme-alabak Ondarreta herri eskola publikora daramatza. Maite Petrikorena zuzendariak honela azaldu du egoera: "Matrikulazioa jaisten ari da jaiotze-tasa txikia delako, baina Ondarretaren kasuan arazo horri gehitzen zaio etxetik euskaldunak diren oso ikasle gutxi ditugula eta aldiz, migranteen seme-alaba diren ikasle guztiak pilatzen ari direla bertan". Arranzek jarraitu du: "Ume euskaldunak behar ditugu, benetako integrazioa gertatzeko. Gure seme-alabak oso ongi integratuta daude, baina herriko beste umeak ez". Petrikorenak nabarmendu du integrazioa herri mailako gaia dela: "Hau ez da Ondarretako arazoa, Andoaingo arazoa da. Eta mahai gainean jarri dugu, ez bakarrik Hezkuntzan, baita herrian ere. Guk bakarrik ezin dugu".

"LEHENIK EZAGUTU ESKOLA GUZTIAK ETA GERO AUKERATU"

Aurten Andoainen 2 urteko 87 haur matrikulatu dira; horietatik 9 soilik Ondarretan. Guraso euskaldunek zergatik ez dituzte beraien seme-alabak Ondarretan matrikulatzen? "Estigma" hitza jarri du mahai gainean Lorena Cabezasek. Bera Ondarretako gurasoa da, eta Espainia-

ko migranteen alaba. Ondarretan ikasi zuen, B eremuan, eta egun etxean euskaraz egiten du alabarekin eta senarrarekin. Cabezasen hitzetan, "eskola hau oso estigmatizatuta dago, betidanik. Nire garaian erdaldunen seme-alabak etortzen ginen hona eta orain beste herrialde batzuetakoak etortzen dira".

Ikasturte honetako matrikulazio garaian, lehendik Ondarretako gurasoak ez ziren hiru familia baino ez dira gerturatu informazio bila. Petrikorena zuzendariaren ustez, "ez gara existitzen. Badi-rudi herrian matrikula egiteko bi aukera bakarrik daudela, edo kristau eskola edo ikastola". Arranzek esperientziak daki hori: "Niri galdetu izan didate kalean, 'a, beste eskola bat badago?'. Harrigarria egiten da eskolaren ezezagutza hori, herri erdi-erdian baitago: Bastero kultur-gunearen ondoan du herri eskolak patio eder estalia eta arratsaldetan eskola guztietako umeak jolasten dira bertan.

Arranzek Andoaingo guraso guztiei dei egin die herriko eskolari aukera bat eman diezaioten, gutxienez ezagutu dezaten: "Nik ere hasieran ez nuen Ondarreta aintzat hartu. Haurrak haurreskolara joaten ziren eta han ezagutu nuen Cabezas eta berak galdetu zigun 'zergatik ez duzue begiratzen Ondarreta?'. Aukera bat ematea pentsatu genuen, ate irekietara joatea eta gero erabakitzea. Uste dut gutxienez hori dela, aukera moduan kontuan hartzea

informazioa biltzeko garaian, eta gero erabakia hartzea".

Arranzek ate irekietan Ondarretaren pedagogia eredia ezagutu zuen eta hori izan zen seme-alabak bertan matrikulatzeko arrazoia: "Pentsatu genuen Haur Hezkuntza behintzat bertan egitea, eta gero bazegoela aukera gustura ez ba-geunden Lehen Hezkuntza beste ikas-tetxe batean egiteko. Probatu genuen, eta gustura gaude, dagoeneko Lehen Hezkuntzan ari dira seme-alabak". Petrikorena zuzendariak nabarmendu du hezkuntza proiektua dela Ondarretaren indarguneetako bat: "Amara Berri sistema daukagu. Hemendik kanpo sekulako fama eta prestigioa dauka, eta hemen, berriz, jende askok ez daki badaukagunik ere".

EUSKARAREN IZENEAN

2019an 50 urte beteak ditu Ondarretak. Egun "Herri Eskola" izendatua dute, bere izaera herrikoia aldarrikatzeko. Petrikorenak eman du ikuspegi historikoa: "Nik 19 urte daramatzat eskola honetan eta ederki ikusi dut bilakaera. Garai batean B eta D ereduak zeuden eta euskaldun jendea etortzen zen D eredura, bai Andoaindik eta bai inguruko herrietatik ere, eta aldiz, B eredura joaten ziren euskara ez zekitenak. 2004 inguruan erabaki genuen B eredia ez izatea, euskarari bultzada emateko eta ikasle denak lerro beretik joateko, eta denak D eremuan batu genituen, hor hasi zen etxetik euskaldunak diren umeen beharokada. Geroztik itunpeko ikastetxeek indar handia hartu dute: kristau eskola Ondarretaren bikoitza da eta ikastola hirukoitza. Andoaingo jende askok pentsatzen du ez badoaz ikastolara ez dutela euskara ikasiko. Oraindik galdetzen didate ea hemen euskaraz egiten den. 20 urte badira D eredu hutsean ari garela, bada garaia uste okerrak alboratzeko!".

Ondarretan ikasita euskara segurtatuta al dago? –galdera egin beharra zuen kazetariak– "Bai, noski" berretsi du Petrikorenak. "Ni naiz horren adibide", gehitu du Cabezasek. Petrikorena bere bizipenetik mintzatu da: "Hizkuntza bat ikasten dugu beharra daukagunean. Nire gurasoak Nafarroatik etorri ziren eta aitak badaki euskaraz hitz egiten, bai-

← **ATEAK ZABALIK.** Andoain erdi-erdian dago Ondarreta, Bastero kultur-gunearen ondoan. Herri osoak erabiltzen du bertako patioa, baina eskola bera herritarrek apenas ezagutzen dutela azaldu digute bertako kideek. Ezkerretik eskuinera: Helene Ariztimuño ikaslea, Henar Arranz gurasoa, Lorena Cabezas gurasoa, Elena Truchuelo idazkaria, Maite Petrikorena zuzendaria eta Leire Uralde ikasketa burua.

na gure etxean oso gutxi egin da, amak ez dakielako. Ikasketak ere gaztelaniaz egin nituen. Magisteritza egitera nindoa-nean erabaki nuen euskaraz egitea. Euskaldunberria naiz. Ondarretan ikasketa guztiak euskara hutsean ematen ditugu, eta noski ikasten dela euskara, baina erabilera da kaxkarra. Zergatik? Eskolatik kanpo ez dutelako euskara behar, beraientzat hirugarren edo laugarren hizkuntza da. Etxean beste hizkuntza bat erabiltzen dute, ez gaztelania eta ez euskara". Arranzek jarraitu du: "Eskola honetako umeentzat inguru euskalduna falta zaigu, euskaraz egiteko beharra sustatuko diena. Hori ezin dugu sortu etxetik euskaldun diren umeak ez badatoz". Horregatik, Andoaingo euskaltzaleei zuzendu zaie: "Euskararekiko benetako militantzia une honetan eskola honetan dago. Euskara zabaldu nahi duenak ez dakitenei zabaldu behar die, eta ez dakitenak hemen daude. Hemen sortu behar da euskararekiko maitasuna. Guraso euskaltzaleei urratsa emateko eskatuko nieke, militantzia hori erakutsi dezatela, behar dugulako".

AUKERATZEKO ESKUBIDEA VS INTEGRAZIOA?

Jaurlaritzaren matrikulazio sistema berriak "zaugarri" eta "ez zaugarri" izendatzen ditu ikasleak eta eragin eremu bakoitzak, kasu honetan Andoain herriak, "zaugarri" tasa bat dauka. Modu horretara egin nahi zaio aurre segregazioari, baina Ondarreta ikastetxean sistema berriaren kontraesanak ezagutu dituzte. Petrikorenak azaldu duenez, "guk dugun 'zaugarri' kopuruarekin, luzez pasa egiten gara proportzio horretan eta printzipioz, epez kanpo matrikulatzen direnen artean 'ez zaugarriak' soilik hartu ditzakegu, eta horiek ez zaizkigu inguratzen". Truchuelo idazkariak azaldu duenez, ikasturte honetan epez kanpo hiru familia matrikulatu dira, "baina horiek ez dira 'zaugarriak', eta Ondarretan matrikulatzea egokitu zitzairen baina kekaka joan ziren Hezkuntzara eta ez dira hemen hasi".

Petrikorenari oso ongi iruditzen zaio ikasle "zaugarriak" ikastetxeen artean banatzea, "baina ez dira horiek bakarrik banatu behar, besteak ere bai". Arranzek dilema planteatu du: "Familien 'aukeratzeko eskubidea' jartzen dute gizartearen ongizatearen gaintik".

Gero eta ikasle gutxiago jaiotzen da. Lehen ikastetxeetan beteta zeuden aulkiak eta gelak husten joango dira.



AMARA BERRI PROIEKTUA. Maite Petrikorena, zuzendaria: "Amara Berri sistema daukagu. Hemendik kanpo sekulako fama eta prestigioa dauka, eta hemen, berriz, jende askok ez daki badaukagunik ere".

Horregatik, gaiaren gakoia ikastetxe bakoitzak duen lerro kopurua dela azaldu dute. Arranzek galdetu du: "Zeren arabera banatzen ditu lerroak Jaurlaritzak? Gurasoen erabakitzeko eskubidearen arabera? Administrazioak Andoainen eskola publikoaren zerbitzu bat badu, zergatik ez du indartzen?". Petrikorenaren ustez, Jaurlaritzaren lerro banaketak eragin handia izan du Ondarretaren gainbeheran: "Duela 15-16 urte, bi lerro genituen eta bagenuen lekua ikasle gehiago hartzeko, baina Hezkuntzak une horretan baimena eman zuen hirugarren lerroa irekitzeko Andoaingo itunpeko bi ikastetxeetan. Gure bukaera izango zela esan genuen orduan; eta halaxe izan da. Hemen bi lerro osatzeko lekua aise daukagu. Orain-

dik maila batzuetan bi lerro ditugu, baina lerro bakarreko bihurtzen ari gara".

"ZAUGARRI" ALA ABERATS?

Truchuelo amorratu egiten du "zaugarri" hitzak: "Nik egiten ditut matrikulak, eta orain galdetegi bat pasatu behar diet familia guztiei eta erantzunak ordenagailuan sartu orduko sailkatzen du aplikatiboak ikaslea 'zaugarri' edo 'ez zaugarri' den. Zenbaki hutsak gara". Galderak "oso materialistak" direla salatu du eta horrelako galderak egitea berari "oso bortitza" egiten zaiola: "Netflixik duten galdetzen da, zenbat gela ditzuten etxean eta zenbat liburu... Etorri berri denak zenbat liburu izango ditu bada?". Familia batzuek galdetzen diote ea zergatik jakin nahi duen ikastetxeak

hori guztia. "Zer erantzun behar diet? 'Jakin nahi dut ea zaugarria zaren edo ez?'. Eta hurrengo galdera da 'eta zer da hori?' Guk hori egin beharra ez zait egokia iruditzen", dio Truchuelok.

"Zaugarri" etiketa jartzen zaion arren, 24 jatorri eta 17 hizkuntza dituen ikasle taldea ez ote da kulturalki oso aberatsa? Petrikorena: "Noski dela oso aberatsa gure eskola, gozamina da zenbat gauza ikasten diren eguneroko praktikan, inon entzuten ez direnak. Elkar ezagutzea da oinarria. Aniztasuna altxorra da, baina jakin egin behar da kudeatzen".

Arranzen iritziz, "herrian ez da baloratzen hori aberastasuna denik. Gure umeak izugarri aberatsak dira, gurasook ere bai, baina etxetik euskaldun diren ume gehiago elkartzea falta zaigu". Andoainen bada bertako familiak etorri berriekin harremanetan jartzeko programa bat, Ongi-etorri izenekoa, baina Arranzen balioan jarri du Ondarretan egunerokoan egiten dutela elkarbizitza, programa berezirik behar izan gabe: "Ni berandu banator umea jasotzera, atean dagoen edonori deituko diot, berdin zait marokoa, ukrainiarra edo Marfil Kostakoa den. Eta alderantziz. Hori da elkarbizitza". Leire Uralde ikasketa burua da eta gauza bera uste du "kulturartekotasunaz": "Ondarretan hori egunerokoa da, ez da ikasgelan landu beharreko gai bat edo ospatu beharreko egun bat, egunero bizi duguna baizik".

KONPONBIDEAK

Ondarretaren etorkizuna kolokan ikusten dute bertako kideek eta egoerari buelta emateko eragile guztien laguntza behar dutela adierazi dute. Irtenbiderako neurri zehatz hauek proposatu ditu Cabezasek: "Udalak herri mailan marketin kanpaina egin behar luke herri eskolaren alde, bertako gurasoak gerturatu daitezten. 2 urteko umeak dituzten familiei gutuna bidali diezaike udalak, herrian dauden eskola aukera guztien berri emanez". Arranzen gehitu du: "Haurreskolak ere egin dezake zubi lana, bertan dabilzan gurasoak bideratu ditzake herriko eskola publikoaren ate irekietara".

Hezkuntza sailak "matrikula guztiak ongi banatu ditzala eta ikasketa lerroak orekatu ditzala" eskatu dute. Petrikorena: "Hezkuntza sailak defendatzen du sarearen %50 publikoa izatea eta %50 itunpekoa. Banaketa hori, teoriarik, oso erraz egin daiteke Andoainen, Ondarretak bi lerro izanda eta itundutako beste bi ikastetxeek lerro bana". Arranzen ja-

ONDARRETA DATUTAN

- **D eredu hutsean ari den herri eskola da.**
- **Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza (2-12 urte).**
- **Ikasleak guztira: 201. Andoainen 1.430 ikasle zeuden matrikulatuta 2021-2022an (datua: Eustat).**
- **2 urteko ikasleak: herrian 87 haur matrikulatu dira 2023-2024 ikasturtean, horietatik 9 Ondarretan.**
- **Aniztasuna: 24 herrialdetako jatorria duten ikasleak daude Ondarretan eta denen artean 17 hizkuntza hitz egiten dituzte.**

“ ”

"Euskara zabaldu nahi duenak ez dakitenei zabaldu behar die, eta ez dakitenak hemen daude. Guraso euskaltzaleei urratsa emateko eskatuko nieke"

Henar Arranz, gurasoa

rraitu du: "Zerbitzu publiko bat garenez, babesa behar dugu. Bai Hezkuntzatik eta bai udaletik. Gustatuko litzaiguke zaindua izatea, eta baita mimatua ere".

1980ko hamarkadatik udalak hitzarmen bidez bideratzen du herriko ikastetxe bakoitzarekin duen harremana, eta bakoitzari diru partida bat esleitzen dio, duen ikasle kopuruaren arabera. Orain arte, Ondarretak eraikinaren mantentze lanei hitzarmeneko diru horretatik egin behar izan die aurre, baina herri eskolako kideak ez daude ados funtzionatzeko modu horrekin. Petrikorena: "Guk ez genuke hitzarmenik behar, udalak egin beharko lukeena eskola publikoaren mantenimendua bermatzea da, hitzarmenik gabe. Eraikina Hezkuntzarena da baina udalari dagozkio mantentze lanak".

Andoain erdian dagoen eskolako patiora irten gara argazkiak ateratze-

ra. Era guztietako umeak ari dira jolasean, eta jakin-minez inguratu zaizkigu, euskaraz. Arranz: "Patioa udalarena da baina herrira irekita dago, beraz, zergatik ordaindu behar ditugu 'hitzarmeneko' Ondarretaren diru partidatik bere mantentze lanak?". Truchuelo gustura dago eskolako patioa, herriko azpiegitura izanik, asko erabiltzen delako: "Eurria ari duenean bertan egiten dira herriko ekimenak, edozein ordutan, beti irekita dagoelako". "Andoingo ikastetxe guztiak udalaren diru publikoa jasotzen duten arren, Ondarretakoa da beti irekita dagoen eskolako patio bakarra", ohartarazi du Arranzen. Patioa herriko umez beteta dago arratsaldetan. Eskola orduetan ere horrelaxe egotea nahi lukete Ondarretako kideek, herriko era guztietako umez beteta. ●

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

NEKAZARITZA SAILEKO TEKNIKARI MAITEARI...



BALERDIPEKO ERLEAK
MATTIN JAUREGI ETA
INAXIO ARIN

Lehen sektorean arazoak gorantz doazela nabari da: klima krisia, kutsadura, lehengaien prezio altuak edo lursailak eskuratzeko zailtasunak...

Bertatik bizi nahi dugunok badakigu zer dagoen, badakigu zailtzen doala sektorea, baina jarraitu edo hasi nahi duen jendea ere bada eta horiei zer esan? Ez hasteko? Edo ez jarraitzeko? Noski ezetz.

Lehen sektoreko langileok ez dugu sektorea diruz aberasteagatik aukeratzten, gure ideia eta lanari zentzua emateagatik baizik. Artzain bati entzuna diot ez dela ardietatik bizi, ardiekin bizi dela baizik. Jakin zenbat oztopo dituen sektoreak eta hala ere dudarik gabe bertatik bizitzeko apustua egiten gabiltza.

Nekazaritza bulegora sartu, azaldu genuen gure egoera eta teknikariaren erantzuna: "Buuu lehen sektoretik bizitzea zail dago, horretarako UTA batera iritsi behar duzue (urteko lan unitatea), ganadu asko jarri beharra dago!".

Zail dagoela badakigu, hori zuk esaterako.



Ganadu asko jarri behar dela? Horretara bideratu nahi dute lehen sektorea eta "bestela akabo, ez zara sektoretik biziko" esaten dizute. Gure ideia eta proiektua azaltzerako ezkor eta mugatuta zegoen teknikaria...

Zure lana ez al da sektorean sartu nahi dutenei aholkularitza eskaintzea eta ahalik eta errazen jartzea?

Esan dizugu badugula sektorearen

berri, badakigula zertara bideratuta dauden laguntzak eta guk ez dugula bide hori nahi...

Zuek esandako baldintzetara mugatu behar dugu lehen sektorea bertatik bizi ahal izateko?

Ala poraiiii!

Gustuko ez baduzu ere, zure lana denez, sektoreko teknikari bezala lagundu beharko diguzu! ●

endanea
MÁS QUE UN GARDEN

943 64 17 10
www.endanea.com

Udazkena iritsi da

Zatoz nobedade guztiak ezagutzera eta denboraldi eder honetarako landareak eta osagarriak bilatzera.

Online denda

LUR PLANETAKO ALIENA



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU
ARANZADIKO KIDEA

Udan gertatua. Haizea babil, baina bero dator, ez dirudi hegan egiteko ere gogorik eman behar duenik. Euliek, ordea, ez dute inolako suspertzailerik behar han-hemenka etengabe aritzeko. Bai gogaikarriak! Hara! Zeozer hegan etorri eta zuhaixka horren hosto artean sartu da. Ez zen txikia, txoria izateko modukoa ez ordea. Hegaldia ere ez zuen oso bizkorra... bero honekin... ea zer den...

Martzianoek halako txikiak suertatu behar zutenik nork sine-tsi! Zentimetro batzuk besterik ez! Baina bai itxura ikusgarria. Eske-rrak ez duela metro pare bat neur-tzen! *Empusa pennata* Mantisen fam-iliako espezie bat da (Mantodea familiakoa hain zuzen ere). Gure artean hain ezagunak ditugun marisorginen antza du mugimendue-tan, jarreran, portaeran. Senitarte-koak direla garbi uzten du. Baina bere ezaugarri nagusietako batek (eta izena ematen diona gainera) berehala arreta ematen du: bere buruko gandorrek, hain zuzen ere. Kapela dirudi eta intsektu goren eta ahaltsu baten aurrean gaudela ohartarazten gaitu.

Ehiztari paregabea, aurreko hanka indartsu horiei esker harra-pakinei otoitz egin beharrean di-rela iragartzen die, marisorginek adierazten dieten bezalaxe. Beste intsektuez elikatzen da nagusiki, nahiz eta armiarmeire ere ez muzin egin. Normalean, adartxo batean edo hosto artean geldirik egoten



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU

EMPUSA PENNATA

TALDEA: Ornogabea / Intsektua / Mantodea

NEURRIA: 5-8 cm bitartekoa.

NON BIZI DA? Klima mediterraneoko sastrakadietan.

ZER JATEN DU? Ornogabeak, intsektuak nagusiki.

BABES MAILA: European ez dago babestua.

da harrapakin bat ageri arte, gero, bere aurreko hankek aurreraka jauzi egin eta horiek dituzten arantzetatik ihes egin ezinik geratzen den harrapakina jaten hasiko da.

Intsektu espezie askotan suertatzen den bezalaxe, emeak arrak baino handiagoak izaten dira eta zortzi bat zentimetrotara ere ailegatu daitezke, nahiz eta ohiko neurria 5 eta 7 cm bitartekoa izan. Marisorginen kasuan bezalaxe, baina ez hain maiz, emeen nagusitasun fisikoak arrak harrapakin bilakatzeko ekartzen du tarteka. Hala ere, arrak trebeagoak dira hegan egiteko garaian... Gaitzerdi!

Intsektuak direnez, metamorfosia burutu behar izaten dute. Metamorfosi sinplea deituriko prozesuak hiru fase ditu: arrautza, ninfa eta heldua. Ninfa fasean bere azala sei aldiz aldatzen dute hazi ahal izateko. Azken azal aldaketa eta gero, hilabete erdia edo behar dute sexu-heldutasuna lortu eta ugalketari ekiteko. Marisorginek ez bezala, negua ninfa moduan igarotzen dute –marisorgin alfer-txoek arrautzatik atera gabe gainditzen dute negua–.

Eremu lehor eta beroak ditu gustuko eta gure lurretan klima mediterraneoa nagusi den lekuetan bizi da, sastraketan nagusiki, eta horiek jasaten ari diren desagertze eta galtzea kalte egiten ari zaizkio, bere populazioak gutxituz. Intsektu dotore hauek udetako sute madarikatu- en harrapakin errazak bilakatzen dira, bere zoritxarrerako. ●

OTXANDIOKO PIKUA PIKUTAN DAGO!



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Irailko hego haizea pikua heldera etortzen da. Pikua pikabeak, pikutzeak, pikondoak, piku-zuhaitzak, piku-arbolak edo piku-haritzak ematen du, *Ficus carica*-k. Pikuaren latinezko izena da *Ficus*, hortik bere generoaren izena, eta *carica*, agi danean, egungo Turkiako hego-mendebaldeko eskualde batetik dator, Kariatik; inondik ere lurralde horretan pikua erruz ekoizten zen pikoaga zabaletan.

Erromatarrek ekarria omen da pikondo Euskal Herrira; haiengana ere ekialdetik etorria izango zen, herriz herri bere jatorrizko Asia hego-mendebaldek; K.a. 4000. urtea aldera Egipton lantzen omen zuten. Gurean toki gozoetan ederki hazi eta pikua ematen du, baina toki hotzetan ez da aleak emateko gai. Esaera ezaguna da "Otxandioko pikua", zaila edo ezinezkoa dena adierazteko. Hogei urtetik gora badira hementxe hau idatzi nuela: "Landatuko dute, juxtu antzera baina biziko da. [...] Otxandio oinubia, laiotza edo ospela da pikondoan unibertsoan. Hegoalderaxeago, euskaldunak erromatar, musulman eta judue-



Pikua fruituak al dira? Ez, guk ezagutzen ditugun piku aleak loreak dira, lore multzoak.

kin elkarbizi izan diren lurretan, aldiz, hura bai paradisua, pikondoaren pagotxa, urtean bi piku uzta ematen ditu: uztapikuak eta pikuak". Horrela, Otxandion urruti edo tokitan dagoela esateko "pikutan dago" esatea ulargarria da.

Pikua iraileko hego haizeak ontzen ditu, baina uztaileko berotzarrak uztapikuak, lore-pikuak, uztaikoak, uztail-pikuak, garagarrik-pikuak edo gari-pikuak. Haiek izaten dira handi eta gozo! Eta urteko aurrenekoetako fruituak.

Baina fruituak al dira pikua? Ez ba. Guk ezagutzen ditugun piku aleak loreak dira, lore multzoak. Pikua ireki eta barruan ikusten diren pikortatxo horietako bakoitza lore bat da, bai, jatean hagin tartean amorragarriki txertatzen diren horiek; pikutara edo pikondora bidaliko zenuke orduan.

Pikua lore multzoa da, barruan lore arrak eta emeak dituena. Eta nola polinizatzen dira lore emeak, barruan baldin badaude? Bada adiskide ttiki-ttiki baten laguntza behar dute, pikondoaren lizortxoak: *Blastophaga psenes*. Oso txikia da, 2 mm-koa, eta pikua muturrean duen zulotxotik, ostiolotik, sartzen da emea, ahaleginean hegalak galduz. Barruan arrautzak jartzen ditu lore emeetan, hori giterakoan txortzen motzeko loreetan zuzenean obuluan jartzen du, baina luzea duten loreetan ezin eta polinizatu egiten ditu. Arrautz horietatik sortuko diren lizortxoak barruan ernalduko dira, arrak ez dira ateratzen, baina haiek egiten duten zulo berri batetik emeek alde egingo dute, bere piku lorearen bila.

Pikua jaterakoan ez duzu lizortz arrastorik topatuko; izan ere, proteolitikoa edo proteinak desegiten dituen enzima bat sortzen du: fizina.

Odoluzki edo almorrari ere pikua esaten zaio. Pikuak digestioari laguntzen dio, hagin artetik uzkiraino; eserak honela dio: "Pikua jan eta kaka egin". ●



**HEMEN DAGO
NAFARROA**

Zigilu honen atzean, zapore on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisala paregabeak, jakinduria eta lana daude.

ReynoGourmet.com

REYNO GOURMET, NAFAR KALITATEA

ILARGIA ETA LANDAREAK 2024KO AGENDA

“ZAZPI URTEOTAN OHARRAK HARTU DITUENAK SEKULAKO INFORMAZIOA DU BERE BARATZEAZ”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Bizitza modernoa estresagarria, polarizatua, politizatua, birtuala eta izugarria da. Irtenbidea landareak dira”. Joseph Tychonievich baratzezain eta idazlearen esaldi horrekin irekitzen da *2024ko Ilargia eta landareak* agenda. Bada, irtenbidea landareak badira, horiek zaintzeko eta mimatzeko tresna ederra da Jakoba Errekondok eta Antton Olariagak urtero osatzen dutena. Oraingoan, haien festara gonbidatu dituzte berriz hama-bi animalia laguntzaile: sai zuria, zirauna, antzandobia, kiribilarra, sugea, muxarra, erbinudea, eskilasoa, oilagorra, txepetxa, satorra eta azkonarra. Eta, 2024ko honek badu beste berritasun bat ere: ‘ekoedizio’ zigilupean argitaratu da, lehenengoz. Errekondok aurkeztu digu agenda.

Oraindik despistaturen bat balego, azaldu iezaiezu zer den agenda hau...

Agenda arrunt bat da, oharrak hartzeko egina dagoena, baina,aldi berean, landareekin egiten ditugun lanak apuntatzeko ere prestatua dagoena.

Eta, zer apuntatzen du Jakoba Errekondok bertan?

Lanak noiz egiten diren: ongarriketanoiz, lur bat noiz prestatzen den, landareak zein egunetan landatzen diren, ea ilgoran den, edo ilbeheran, zein barietateko landareak diren –ongi funtzionatzen badute hurrengo urtean barietate horiekin errepikatuzeko–, uzta noiz jaso ditugun... norberak nahi



DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

duen informazio guztia jaso dezake agendan.

Informazio eta baliabide ugari eskaintzen dituzue agendan. Zein atal ditu?

Tresna honen barruan lau atal ditugu: baratzea, fruta arbolak, lorategia eta basoa. Hilero, horietako bakoitzean zein lan egin behar diren azaldu dugu. Bestetik, hilero zein barazki fresko ditugun ere jaso dugu, sasoikoa eta bertakoa jaten ikasteko eta osasunezko

elikadura edukitzeko. Ilargia nola dagoen ere astero jaso dugu, bere bi zikloekin: ilgora-ilbehera, eta ilzaharra-ilberria. Ilargiaren funtzionamendua, berriz, agendaren hasieran dago azaldua.

Zenbaterainokoa esanen zenuke dela ilargiaren eragin hori baratzean eta basoan, eta zertan eragiten du bereziki?

Tira, nik beti diot, ilargiak ez duela miraririk egiten, baina lagundu, laguntzen duela baratzean. Baina, noski, horretarako, aurretik beste lan guztiak ongi eginak eduki behar dira. Ongarritzen ez baduzu, lurra ongi ezagutzen ez baduzu, landatzeko eta ongarritzeko sasoak errespetatzen ez badituzu... alferrik eskatuko diozu ilargiari deus. Baina, eragina, noski badue-la. Arbolak egurretarako noiz bota, fruta noiz jaso, noiz landatu, noiz ongarritu, noiz txertatu... guztian du eragina!

Urtero-urtero agendan oharrak hartu dituenak entziklopedia ederra izanen du honezkeroko...

Pentsa! Ilargiaren agenda argitaratzen dugun zazpigarren urtea da. Bada, aurretik aipatutako informazio hori guztia jasotzen aritu den baratzezain horrek izugarrizko informazioa dauka bere lurrari eta baratzeari buruz. Azkenean, guk esan dezakegu perrexila maiatzetik irailera egin daitekeela, baina agian beste nonbait apirilean ere ongi etortzen da. Apuntatuz ikastea da agendaren proposamena, nork bere baratzea gehiago ezagutzeko tresna da hau. ●

PODCASTAK



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Landareei ahotsa emango dien podcasta

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Menda bikoitza. Izan liteke egun txar baten amaieran etxean hartuko duzun penak kentzeko erremedioa. Normalean baino zama dolea gainean dakarkizunerako analgesikoa. Izan liteke txikle berri baten zaporea ere, zergatik ez. Baina gaur artikulua honetara dakarkiguna da freskotasunez ARGIAk urriaren 9an aurkeztuko duen podcast berria. *Menda bikoitza*, Garbiñe Larrearen ahotsetik (beste boz batzuk lagun).

“Ez da erraza izenburu original bat asmatzea, izenburu guztiak asmatuta daudenaren sentsazioa duzunean”, azaldu dit Larreak. Zergatik menda eta zergatik bikoitza? Gure imaginarioan usu topatzen dugun sendabelar mikatzaren pentsaera aldatzen laguntzen duelako mendaren freskoak, batetik, eta sendabelar bakoitza bat eta bakarra denaren ideia okerra iraultzen ahalginduko direlako bikoitzak aditzera ematen duen pluraltasunarekin, beste-

tik. Familiak osatzen baitituzte landare gehienek. Horrek dakarren konplexutasunarekin. Batzuen eta besteen arteko ezin eramanak eta guzti, izaki bizidun on bezala.

Ez diote egitura zurrun bat eman nahi izan irratsaioari. Bi aste behin zintzilikatuko da, astelehenetan, ARGIAren audio plataformetan eta orduerdi inguruko tarteak aprobetxatuko dute, landareak oinarri hartuta beti, hitz egiteko saio batean pixka bat sendabelar batez, beste pixka bat garaian garaikoaz, irekiko dute beste tartetxo bat irakurri edo entzundakoari erreferentzia egiteko... eta agian hurrengo batean saio osoa eskainiko diote elkarrizketa bati. Malgutasuna izango du batzuetan zentratzeko, akaso, erremedio praktikoa batean eta hurrena, baliteke hitz egitea gure kulturen, kantugintzan, literaturan landareek duten presentziaz.

Naturatik geroz eta urrunago (fisiokoki eta kulturalki) bizi garelako azken

Ongi etorri komunitatera!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIAko kide egin diren lagun batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei komunitatera!



“Euskaratik pentsamendu kritikoa bultzatu eta babesteko”.

Getxotik Aitorrek

“Proiektu beharrezkoa eta interesgarria. Gustura irakurtzen zaituztet eta proiektu honen atzean dagoen lan ikaragarria eskertzeko modu bat dela uste dut”.

Errezildik Maitanek

“Euskaraz irakurtzera animatzeko, kalitatezko artikulua anitzen irakurtzeko, ARGIA sustengatzeko modu bat dela uste dut”.

Zuraidetik Pettanek

aldian aipatzen ari gara. Ez dakigu identifikatzen egunero ikusten ditugun landareak. Ez dakigu etxe inguruan topa ditzakegun hiruzpalau zuhaitzen izenak esaten. Ikusezintasuna handia da eta eta hori apurtu nahi du Garbiñe Larreak podcast honekin, ate bat ireki jakintzari.

Eneritz Arzallus izango du teknikari lanetan lagun, baina “teknikaria kristal atzera kondenuatu gabe”, mikroa irekita izango du eta Arzallusen eleak ere tartekatuko zaizkigu saioan, Rö musika taldearen melodiek eta Ianire Aranzabe eta Oriol Floresen *Inork entzuten ez gaituenean* abestiak lagunduta.

Gonbidatuen artean, sekretu guztiak plazaratzeko asmorik gabe, Miren Agur Meabe eta Nekane Martiarena.

Urriak 9, astelehena, Menda bikoitza dastatzeko egun proposa. ●



Irulegi: eskuaz haratago, eskuari esker



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Irulegi, duela 2.100 urte inguru. Burdin Aroko herrixkari eraso egin eta erre ondoren, biztanleek abandonatu egin zuten 1.100 urte inguru eta gero. Amaierako garai hartakoa da iazko kanpainan argitara eman zuten esku ezaguna, eta aztarnategiaren ikerketan eragin nabarmena izan du aurkikuntzak.

Eskuari esker, bisitariak asko ugaritu dira: 2.000 bisita gidatutik gora kontratatu dituzte orduz geroztik, eta diru-laguntza publiko gehiago ere jaso dute. Hala, lehen hilabete eta erdi iraun ohi zuen kanpaina hiru hilabetez luzatu da uda honetan. Eta emaitza bikainak jaso dituzte ondorioz.

Kanpaina honen ondorioz zehaztu dute herrixka populatua egon zen garaia: duela 3.200 urtetik, duela 2.100 urte ingurura. Orain arte induskatutako bi etxebizitzek gain, hirugarren bat ikertu dute eta, besteak beste, Pirinioen mendebaldean bakarra den zazpi mailatako eskailera bat topatu.

Kanpainaren ondorio nagusietakoa izan da baskoien erromanizatzeko prozesua ez zela uste bezain bat-batekoa eta bortitza izan, pixkanakakoa eta konplexuagoa izan zela. Mattin Aiestaran Aranzadiko indusketa zuzendariak adierazi duenez, “baskoi hauek erromatarren berri bazutela ikusten dugu. Mediterraneo ikusi dute eta hona ekartzen saiatzen ari dira. Gerora Erromatar Inperioa izango dena egokitzen ahalegintzen ari dira, baina beren berezitasunak gal-



NAFARROAKO GOBERNUA

du gabe”. Aurten ikertutako egiturek agerian uzten dute baskoiak erromatarren eraikuntza teknikak imitatzen saiatu zirela, “ez zuten ondo egin, metodologia falta zitzaion”.

75 gezi su-eragile aurkitu dituzte eta garbi geratu da herrixka eraso eta erre zutela, biztanleen zoritxarrerako eta arkeologoaren zorionerako. Lastozko estalki eta adobezko horma erreen arrastoen azpian objektuak egoera bikainean kontserbatu direlako. 2.000tik gora objektu aurkitu dituzte: zeramika arrastoak, beira-aleak, zaldientzako uhalak, armak... Horiek guztiek adierazten dute

Irulegiren garrantzia estrategikoa. Ebro bailararen, Kantauriko kostaldearen, Akitaniaren eta Galiaren arteko bideak kontrolatzen zituzten. Inguruko ardatz nagusia zen herrixka, eta kanpoko herrialdeekin harremana zutela erakusten dute inportatutako objektuek, esaterako, aurkitu berri duten Adriatikoko anfora; Italiatik ardoa ekartzen zutela esan nahi du horrek.

Irulegi ezagutzen hasi besterik ez garelako egin dio Aiestaranek. Aurtengo kanpainak hainbat ikerketa-lerro berri zabaldu ditu. Eskuaren eskutik, askoz gehiago emango digu Irulegik aurrerantz. ●



ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

Nazioarteko saria Aranzadirentzat

Joan den abuztuaren amaieran, Europako Arkeologia Elkarteak 2023ko Europako Ondare Arkeologikoaren Saria eman dio Aranzadi Zientzia Elkarteari. Alor horretan European ematen den sari garrantzitsuena da, eta Aranzadik jaso duen nazioarteko lehen saria. Hona hemen erabakia bultzatu duten arra-

zoiak: “Ondare arkeologikoarekin eta oroimen historikoarekin duen konpromisoa, bere lanaren eragin sozial eta politiko sakona, eta Irulegiko Eskuaren aurkikuntza nabarmena, European azken urteetan egin den aurkikuntzarik esanguratsuenetakoa, daukan eragin sozial eta politikoarengatik”. ●

“ ”

Idazketa lantzeko eskaintzak egon beharko luke, musika eskolen moduan

Idazketa trebatzeko topaketak antolatu dituzte Donezteben, urriaren 12tik 15era. Sormena lantzeko askotariko baliabideak eskaini asmo ditu Zirriborro egitasmoak, besteren artean dokumentatzen, generoen arteko mugak aztertzen, umorea erabiltzen, pertsonaiak xehetzen edota itzulpengintzatik ikasten. Beharra identifikaturik dagoela bistakoa da.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Urriaren 12a jaiegun ofiziala da Espainiako Estatuan. Ostegunez izango da aurten. Batzuek, haien zorionerako, asteburua luzatzeko modua bilatuko dute; eta beste batzuek, ordea, osteguna lan egin eta egun hori beste baterako gordeko dute. Urteroko moduan, data buelta horretarako badira hainbat deialdi, izan festarako, topaketarako edo beste era bateko lana egiteko, zaintzarako, militantziarako edota ikasteko. Ezohikoa den zitarik topatu dugu aurtengo karteldegian, ordea. Hain justu ere Nafarroan, Donezteben, idazketa trebatzeko topaketak antolatu dituzte. Aterpetxe batean sartuko dira 30 lagun inguru, lau egunez, eta makina bat tailer eta hizketaldi izango dituzte goiz, arrats eta gau. Oinarrian dutena zera da: zirriborro egitea. Ideiak zirriborrazetik hasten baita idazten.

Iñigo Satrustegi Andrésen (Iruñea, 1997) ekimenez sortu da Zirriborro egitasmoa. Itzultzailea da ikasketez, irakaslea ofizioz eta ARGIAko kolaboratzailea

ere bai kultura gaien orriotan. Aspaldian buruan zebilkion ideia bat, gizartean existitzen den gabezia bat: idazketa, jardun artistiko gisa ulertuta, era kolektiboan landu beharko litzatekeela eta eskaintza, egun, urria dela. “Oso jardun indibiduala da idazketa, askotan behintzat. Badago formatzeko aukera, baina ez horrelako formatu batean”.

Ideia bera edo oso antzekoa zebilen zortzi gaztek osatzen zuten Hatz(a) marka kolektiboaren pentsamendu bileretan, Iruñerrian; kide horien artean zegoen Satrustegi. Duela bost urte sortu zen talde hura, eta ilustrazioz eta testuz osatutako liburu bat atera zuten denen artean, *I* izenburuarekin. Sorkuntza lanak plazaratzeko aukerak urriak zirela adierazteko helburuz, Iruñerriko sortzaile gazte eta euskaldunei egiten zieten dei “sortzera”.

Zirriborro antolatzekeo ideiak, beraz, zerikusi handia du Hatz(a) marka kolektiboaren izatearekin: “Zirriborrorren antzeko zerbait egiteko ideia-edo bageñeukan, baina zaila zitzaigun zortzi

pertsona koordinatzea. Orduan, neuk hartu dut, baina laguntzaile sare handia daukat”.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak urtero aurkezten dituen aurrekontu partehartzaileen iragarkia parean tokatu zitzaion, eta anuntzioa gordetzea erabaki zuen. Aurkeztu, eta lehen fasea pasatuta, herri bozketa egin zen Nafarroako gazteen artean. Hiru proiektu saritu zituzten, bakoitzari 10.000 euroko aurrekontua esleituta.

NON IKAS DAITEKE IDAZTEN?

Hezkuntza arautuak zenbateraino laguntzen ote duen sormena lantzen, horixe da askoren kezka. Sorkuntzari loturiko ikasgaiak, sarri, plastikara mugatzen dira, eta plastikak, finean, antzekotasun handiena pinturarekin du, edo marrazketarekin. Sormena lantzerantz bideratu ohi diren ikasgaietan inoiz gutxitan aurreikusten da ikasleak orri zuri baten aurrean jartzea.

Harago doan kontua da. Izan ere, hezkuntza sistematik irtenda, eskaintza

Osteguna 12		Ostirala 13		Larunbata 14	
8:00		Gosaria		Gosaria	
9:00		ISABEL ETXEBERRIA		UXUE JUAREZ	
10:00	Harrera				
11:00	YOLANDA ARRIETA	Atsedena		Atsedena	
12:00		JON ALONSO	OIHANA ARANA	IÑIGO ASTIZ	LAURA CHIVITE
13:00					
14:00	Bazkaria	Bazkaria		Bazkaria	
15:00	Atsedena	Atsedena		Atsedena	
16:00					
17:00		MIREN AMURIZA	YURRE UGARTE	OIHANE GARMENDIA	PERU GALBETE
18:00	OIER GUILLAN				
19:00		Atsedena		Atsedena	
20:00	Atsedena				
21:00	Afaria	Afaria		Afaria	
22:00	AMELI	BAÑOLET FILMA		PERU GALBETE	

oso urria da sormen idatzia lantzeko. Eskaintza sortu eta "sistematizatzea" falta dela uste du Satrustegik, "apustu serio bat egitea". Adibidetzat jarri du musika eskolen kasua: "Musika eskolen aldeko apustua egiten da, bistakoa da, eta funtzionatzen du. Horregatik, musika eskola publikoak dauden moduan, egon beharko luke idazketarako eskaintza batek ere. Behintzat zeozer eskaini dadila, eta aztertuko da eskaria. Euskarazko eskaintza sustatubeharko genuke, erdaraz zerbait gehiago egon badagoelako".

Gobernuak proiektua esleitu zionean, idazleen Elkartera jo zuen Satrustegik ate joka, laguntza eta aholku eske. Asko lagundu diotela dio, baina ez du berehalakoan ahaztuko eman zioten lehen erantzuna: "Esan zidaten beraiek ere identifikatzen zutela halako tailer edo topaketen hutsunea, baina ez direla gai askorik egiteko, ez dutela dirurik". Horregatik, Satrustegik dio "sintoma" bat dela: "Ez bada erakunde handietatik dirua jartzen, ez da egiten".

EGITARAU OPAROA

Lehen unetik argi zeukan Satrustegik "idazketaren adiera ahalik eta zabalena" landu nahi zuela, egonaldira doan bakoitzak bateko eta besteko interesak izan ditzakeelako. "Fikzioaren barruan hartzen da narratiba, baina baita antzerkia, haurrentzako ipuinak eta abar ere. Beraz, egitaraua baliagarri izan dadila interesatu guztientzat", dio.

Egitaraua hartuta, punta bateko eta besteko hizlari eta eduki emaileak topa daitezke. Itzulpengintzaren tailerra nabarmendu du Satrustegik, itzultzailea den heinean, bereziki kitzikatzen duen alorra delako: "Unibertsitatean irakasle izan nuen Isabel Etxeberria izango dugu gonbidatu. Berak irakatsi zigun itzulpengintza badela beste tresna bat sormena lantzeko, ez agian zuzenean aplikatu daitekeena, baina bai zeharka lantzekoa. Balio du estiloa garatzeko edota gramatikarako, jakina".

Aisialdirako astia ere izango du Zirriborro topaketak. Udalekuen formatuari eutsita, gaubela modukoak

antolatu dituzte, "burua ihesteko". Ameli ipuin kontalaria gozatuko dute lehenbiziko gauean; bigarren, *Bañolet* filma proiektatuko dute; eta azkenengoan, Peru Galbeteren musika eta Uraren oldea emankizun esperimentalak izango dute ikusgarri. "Ez da bakarrik formazioa, baizik eta elkar ezagutza, lehen esandakoagatik, oso jardun bakartia delako idazketa", esan du Satrustegik.

Laugarren eta azken egunean, bestalde, balorazio saio orokor baterako deia egingo diete topaketetan parte hartu duten guztiei: "Helburuetako bat harremana egitea da. Igande goizeko saio horretan ikusiko dugu jendeak ze gogo duen, ea saretze moduko bat antolatzeko asmorik dagoen, jarraipena izango duen... Agian ez da kolektibo bat izango; akaso, besterik gabe, Whatsapp talde bat egin eta elkar laguntzeko talde bat sortuko da, edo agian ez da ezer sortuko. Bertan dagoen jendearen nahien, beharren eta gogoen arabera izango da". ●

Jaione Camborda zuzendaria eta Janet Novás aktorea.



JORGE FUENBUENA / DONOSTIA ZINEMALDIA

Zaintza eta erditzea

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

71. edizioak izen propio bat utzi du: Jaione Camborda. Historian lehenbizikoz, Euskal Herrian jaiotako emakume batek jaso du garaikur nagusia. Donostiarrarentzat izan da Urrezko Maskorra, oso-osorik galegoz den *O corno* filmarengatik. Urriaren 11tik aurrera helduko da Hego Euskal Herriko zine aretoetara.

Galiziako irla batean kokatzen da istorioa, 1971n, oraindik ere Portugalerako pasabideak Poliziak ongi kontrolatuak zituenean. Mariák –Janet Novás da aktorea, lehenbiziko pelikula du– erditzen eta abortatzen laguntzen die emakumeei; teknika bitxia darabil, misterio hutsa dena. Emaitza onak utzi ohi ditu, baina huts egiten du abortu batek. Mariák, isilean, ihesari ekingo dio, Portugalerako bidea hartuta.

Zentralitatea duten pertsonaia guztiak emakumezkoak dira, eta haien arteko elkartasuna erakusten da pelikulan. Lehendabiziko eszenatik hasita, ikuspegi feminista nabarmendu egiten zaio Cambordari.

BI GOMENDIO

Saria eskuratuko ez balu ere, gomen datuko nukkeen filma da *O corno*. Beste hainbat lan ere nabarmentzekoak dira, aretoetara edo plataformetara gerturatu ahala kontuan hartzeko.

LE SUCCESSEUR

Modaren munduan, goi-mailako konpainia bateko lidergora heldu berria da Ellias Barnès protagonista.

Beste oinordekotza bat ere helduko zaio, Quebec-en bizi zitzaion aita hil egin berri delako. Ez zuten traturik, baina



71. ZINEMALDIKO PALMARESA

Urrezko Maskorra:

O corno (Jaione Camborda)

Epaimahaiaren sari berezia:

Kalak (Isabella Eklöf)

Zuzendari onena:

Tzu-Hui Peng eta Ping-Weng Wang
(*Chun xing / A journey in Spring*)

Interpretazio protagonista onena (ex aequo):

Marcelo Suiotto (*Puan*) eta
Tatsuya Fuji (*Great Absence*)

Taldeko interpretazio onena:

Hovik Keuchkerian (*Un Amor*)

Gidoi onena:

María Alché eta Benjamín
Naishtati (*Puan*)

Argazkigintza onena:

Nadim Carlsen (*Kalak*)

Euskal zinemaren Irizar Saria:

El sueño de la sultana
(Isabel Herguera)

bertara joan beharko du, hileta eta ondasunak kudeatzera. Patxada eskatuko dio Montrealen topatuko duenak; susto galanta jasoko du. Thriller itxura hartzen du filmak, baina komediako ateraldiak ere baditu. Otsailean estreinatuko da.

PUAN

Komedia ederra. Filosofiako irakaslea da Marcelo (Marcelo Suiotto aktoreak saria jaso du). Ikasketa-buru eta laguna bihotzekoak jota hil berri da, eta horren aitzakiapean, artaburu galanta den tipo bat Buenos Airesera itzuliko da. Filosofiako irakaslea da hau ere, Alemanian; alegia, oso-osoa izan behar duela. Hilberriaren postuarengatik lehiatuko dira.

Komediaz harago, jorratzen diren gaiak sakonak dira: heriotza, gizartearen pobretzea, langile klasea... Urriaren 5ean helduko da zine aretoetara. ●

Oroituko dugunaz

IXONE SANTAMARIA

Aurten Donostia Saria jaso duen Víctor Ericcek galdera bota die Zinemaldiko kazetariei: “Badakizue zein den irudi-euskarririk iraunkorrena?”. Erantzuna ez da euskarri digitala, ez fotokimikoa; baizik eta olio. Olio pinturak saihesten du ahanzturaren orbaina zinemak egin dezakeena baino hobeto.

Alabaina, zinemak irekitako betierekotasunaren bidea zabala eta emaritsua da, eta, urtero-urtero, emankorra da Zinemaldiak egiten dion ekarpena. Klasi-koen artean, aurtengoa izan ditugu Teshigahara-ren atzerabegirakoa, forma eta edukietan astintzailea dena; José Val del Omar-en *Festival en las entrañas*-en irudi hilezkorra edo Raúl Ruíz eta Valeria Sarmiento-ren *Realismo socialista* asmorik eta zaharrenaren berritzailea.

Jakina, ikuslerik gabe oroitua izaterik ez dago. Zentzu horretan, ikusle zein kritikaren onespina jaso behar dute Zinemalditik igarotzen diren proiektu berri guztiek. Ikusitakoen artean, bi dira buru-

tik kendu ezin izan ditudanak: Jonathan Glazer-en *The Zone of Interest* eta Christian Petzold-en *Rotter Himmel (Afire)*. Perlak sailean lehiatu dira eta, ikusleen artean ohore handirik merezi izan ez badute ere, biak nahiko nituzke gomendatu. Horiez gain, udazken arratsalde tristetarako apuntatu Aki Kaurismäki handiaren *Fallen Leaves*.

Izen ezagunak alde batera utzita, *underground*-aren eta zabartasun ederrenaren bandera zalapartatsuki aldarrikatzen duten *Misión a Marte* –Amat Vallmajor del Pozoren lehen film luzea– eta *Mamántula* –Ion de Sosa donostiarraren bitxikeria– aipatuko nituzke. Gozagarria da bien axolagabekeria eta gertukoa haien alprojakeria.

Era berean, proposamen harroen eta handi nahi iruditik urruntzen jarraituz, Martin Benchimolen *El Castillo*-k ere merezi du arreta. Kasu honetan, bai, bat etorri gara epaimahaia eta biok; izan ere, Horizontes Latinos saileko irabazlea izan da film argentinarra. Nabarmentzekoa

ere, bere txikitasun handian, Bas Devosen *Here*, Zabaltegi-Tabakalera sailekoa.

Oroigarri eta oroitzapenez gain, batik bat etxerako lanak utzi dizkigu aurtengo Zinemaldiak. Berreskuratu beharreko lo-orduak, ezagutu beharreko filmografia berriak, datozen hilabetetan galdu ezineko emanaldiak... Hortxe kokatuko nituzke ikusi gabe geratu zaizkidan *Anatomie d'une chute* (Justine Triet), *May December* (Todd Haynes) edo Zabaltegi-Tabakalera saileko irabazlea izan den *El auge de lo humano 3* (Eduardo Williams) esperimentalak.

Baina, zer gertatzen da pantailak itzaltzen direnean? Zer alfonbra gorria jaso eta azpian gordetako hautsak harrotzen direnean? Astebetez olio pintura finez margotua izan den hiria salgai jartzen laguntzen duen ekitaldiak zenbateko iraunkortasuna dauka? Akaso hori da, etorkizunari begira, geuk gogoan hartu beharreko irudia. Akaso, arrazoi du Ericcek eta egia da ez gabiltzala beti ortzi muga hobe eta berrietara ibilian. ●





LIBURUA

Urrutiko intxaurrak



TXALAPARTA

ZOMORROTU AINTZANE USANDIZAGA

TXALAPARTA, 2023

AMAIA ALVAREZ URIA

Aintzane Usandizagak argitaratu duen helduentzako bigarren ipuin bilduma da *Zomorrotu*. 77. orrialdean azaltzen da zer den zomorrotzea: “norbaitekin liluratuta egon ostean” gertatzen dena, interesa galtzea, aspertzea, arrunt bilakatzea. Liburuaren azaleko Pili Agudoren ilustrazioak ordea, beste irakurketa bat ekartzen digu: pertsona batek bere mozorroa edo maskara altxatzean atzean agertzen den aurpegi biluzia erakusten digu erdizka. Izan ere, hori da liburu honetan topatuko duguna. Pertsonaia batzuek idealizatuta zituzten pertsonak, bizimoduek, harremanek edo lanek distira galduko dute eta argi-ilunekin agertuko zaizkie bat-batean.

Bost narrazio luze dira, ataletan banatutakoak, eta pertsonaia batzuk ipuin

batean baino gehiagotan agertuko dira. Lehen, bigarren edo hirugarren mailako pertsonaiak izango dira txandaka. Mai eta Maddalenen istorioa da zentralitate handiena duena agian, eta Begori buruz gehiago jakiteko gogoarekin geratu naiz. Horregatik uste dut ez dela nobela bat, horretarako gehiago garatu beharko lirakeelako pertsonaien arteko sarea eta istorioen hariak garatu.

Akiles eta *Egin genezakeen onena* iruditu zaizkit borobilenak. Su txikian egositakoak amaierako kolpera heldu arte. Bizitzan aurrera joan ahala erakitzen dugun egunerokoa zein erraz erori daitekeen edo, nahi izatera, zelan eraitsi genezakeen ikus dezakegu. Gainera, familia eta lanari buruzko gogoeta egiteko aukera ematen digute testuok, gure jendartean oinarrizko zutabe di-

ren bi eremu eta harreman-sareak biak. Harreman sexu-afektiboak eta adiskidetasunari buruz hausnartzeko beta ere eskaintzen digute ipuinok, gaztaroan eta helduaroan, eta bi aro horien artean, gertatzen diren zenbait egoera ekartzen dituelako egileak.

L irakurtzean asko gozatu dut egilearen umore finarekin eta bertako zenbait irudirekin; protagonistaren eta autoeskolako irakaslearen arteko tira eta birekin, adibidez.

Baina interesgarriena orriotan zomorrotzea edo mozorroa jaustea da. Zer egin norberaren zaurgarritasuna azaltzen denean? Aspaldiko fantasia gauzatu eta gero? Miresten duzun pertsona ezagutzean? Ametsak betetzeko aukera heltzen bada? Zure bizitzaren bolanteari eusten diozunean? ●



MUSIKA

Asperduraren kontra, Belako



SIGO REGANDO BELAKO

BMG, 2023

XALBA RAMIREZ

Belako ez dago sekula geldirik. Isilik daudenean ere, ari dira beti sormenean bide berriak jorratzen. *Plastic Drama*-ren ostean, gogo biziz jaso dugu *Sigo Regando* lan kaleratu berria. Ez dakit nola egiten duen talde honek, baina beti egiten du zerbait berria, eta zerbait desberdina, baina beti du norabide bera.

Nola garatu behar du, bada, talde batek, bere norabidea? Lerro hauetan aspalditxo aipatu genuen *Think in a box* kontzeptua. Behin marko bat definituta, hor barrutik atera gabe etengabeko bilaketan jarraritzea. Markoa ez da, ezinbestean, estilo bat. Joko zelai bat baizik. Eta Belako sakonean ari da esploratzen bide hori.

Render me now, trivial violence (2018) lanean, alderdi esperimentalena garatu zuten, eta aldez, *Plastic Drama*-n

hitak oso presente zituzten. Dena izan zen kantagarriago. Edonola ere, mungiatarren DNAn dago hau; mugak bilatu arren, dantzagarriak eta kantagarriak dira, eta, honela, publiko zabala izan dute beti euren alde.

Jendeari gehiago edo gutxiago gustatzen zaion arren, gutxitan lortzen du talde batek tamainako kontsentsua. Kritikarena –halakorik badago– eta publikoarena –baita, ojo, festibalena ere–. Ba, aupa Belako lortu izanagatik.

Aipatu lan berri honek aurreko bien nahasketa dirudi. Zati lanbrotsuak eta melodia itsaskorrek nahasten dituztelako. Behin sartuta ihes egiten ez dute netakoak, bai. Lehen entzunaldian pixka bat betiko bera dirudien arren –hainbat kantak diskografiaren oihartzuna dutelarik– entzun ahal konturatzen zara

beste behin ere, disko berezia egin dutela Belakotarrek.

Lasaiagoa, onirikoagoa, intimoagoa iruditzen zait. Baina ez dute galdu zirta, eta pizten dituzte melodia itsaskor eta kantagarriak, baita ere. Eta zein da sekretua, horrenbeste urteren ostean, arrarokerien eta maintstreamaren artean trostan ibiltzeko?

Gaztelaraz abesten duten kanta bakarrean topatzen dut nik erantzuna: “Y si tengo que ver / como me ven los ojos de la gente /Tengo miedo de no gustarme pero prefiero no aburrirme” (Ikusi behar badut / jendearen begiek ikusten nauten moduan / beldurra dut ez naizela gustatuko / baina nahiago dut ez asperitu). Asperduraren kontrako kolektibo antolatu bat da Belako. Beraiek pasatzen dute ondo lehenik, eta guk ondoren. ●



Tapia eta Leturia wedding band

 AMETS ARANGUREN

Duela hilabete-edo nituen ikusiak azken aldiz Elgoibarko plazan. Kontzertua bukatuta agurtzera hurbildu eta “Zer, Amets, eta LABAn noiz joko dugu?” bota zuen Tapiak. Harrigarriki azkar aritu zen nire garuna: “Irailaren 20an, zer iruditzen?” (ordu batzuk lehenago nuen jasoa egun horretarako Olaia Inziarteren ezezko inteligentea). “Letu, libre al duk irailaren 20a?”, “mmm... bai” besteak. “Hantxe izango gaitun, Amets”.

Esan eta egin. Hitzartutakoa baino best minutu lehenago heldu da Euskal Herriko bikote ikonikoenetako bat Gazteluko Plazako ixkinara. Iruñeko Alde Zaharreko festak dira asteburuan eta, berotze ariekta gisa, asteazkenez hasi da LABAn Sanfermin Txikiko programazioa. “Honekin ezkontzetan-eta jo izan dugu asko, *Tapia eta Leturia wedding band* ginenean” aipatu digu irribarrean ahoan Tapiak soinu ekipoa autotik ateratzen dugun bitartean.

Heldu den urtean 40 urte ospatuko dituzte elkarrekin jotzen eta, gaurkoan

hasierako formatura itzulita, hasierako garaiko kantuek emateko probestu dute. *Kalejira heavy*-rekin hasi direlarik, sakelakoa atera eta *zoom* egin du Leturiaren eskuetara nire ezkerretara zegoen gizon helduak, “*es que somos aprendices de pandero*” esan dit eskuinetara nuenak, ilusionatuta.

Because I love you izan da ondotik. “Barka umore gipuzkoano hau” bota du usurbildarrak *Ongi egiten dugu Iruñekoak izateko* dioen kamiseta soinean daramala. *Ene Maialen*-ekin luzatu dute berriz gonbitea dantzarako. Eta gogoz ikusi dut Maddalen lehenengo ilaran, baina goizegi zen oraindik. “Aldatu bikoteak” esan du Tapiak eta elkarri begiratu diote oraindik dantzarako lotsati daudenek. “Bizitza errealean, e” gehitu du abeslariak barre artean.

Bakarrrik hasi zuten biek ibilbidea musikaren mundu honetan, baina segituan heldu zen teknologia eta, harekin batera, *caja de ritmos*-a. Festarik festa kantuek

TAPIA ETA LETURIA

NOIZ: Irailaren 20an

NON: LABAn (Iruñea)

eztandarazi du LABA, *erritmoen kaxa* lagun. Irudia simple bezain ederra da: jende guztia dago pozik, oso. *Mitikisimoenak* ere jo dituzte, nola ez, *Besamotza*, *Wafa*, *Konpostelako erromesa*... Fandango, arinarin eta porrusaldekin tartekaturik. Lotsaz gain zapatak ere erantzi ditu batek baino gehiagok, dantzarako erosoago.

Honaino helduta jada soberan beteak zeuden nire espektatiba denak eta sumatzen nuen irribarre egiteari utziko nion momentuan min pixka bat emanen zidatela masailek. Baina orduan heldu ziren nire bi momentu faboritoak, bata bestearen atzetik: kongu unibertsala (bai, Tatxers-eko Iñigo Soriak ere egin zuena) eta Julen Goldarazena musikaria eta Oier Zuñiga aktorea *Hik lan eta nik jai* kantatzen... “artisten” maskarak erreparorik gabe erortzen utzita...

Ezkontzearena ez dut printzipioz planen artean, baina bizitzak inoiz halako zerbait parean jarriko balit, zalantzarik ez zein *wedding band*-ekin ospatu. ●



Hitz gezidunak

AGUR LAGUN ARTE- KO HIZKERAN, ZAKIL	ETENGABEKO HIZKETAN UGARITASUN ATZIZKIA	ONTASUNEZ			ARIN, AZKAR BIKOTE DANTZA	MADARIKA- ZIO, ARNEGU BERRIZ JAIO	KANTATZEN NEURTZEZA
ARABAKO ERRIOXAKO UDALERRIA POLIZIA NAZI					ONDDO ETA ALGA ELKARTE AZKEN LETRA		
	BIGARREN MUSIKA NOTA NEGUKO SOLSTIZIO		BELDUR BIZI ESANEZ	ZURRUTADA EDAN DAITEKEEN SUBSTANTZIA			
ANTZEZLARI ...SARDUI, ABESLARIA					PERTSO- NAIAREN IZENA ARMA ZURIA		
		HOTEL BATE- KO LOGELA BEREZIA ESPIRITISTA				...GUNEAK, TELEZEN- TROAK NEGARTI	
BEREKOI	BORRAGOMA BEHAR ADINA ON EZ DENA		JAUNTXO UBEL				SORTZAILEAK
					OLERKARI EUSKAL HERRIKO MENDIA		
SAILBURU (LABURDU- RA) UGAZTUN KARRASKARI		GEZI TXIKIA R HIRUTAN				SOTO, UPATEGI ZUT	
			INDARKERIA INFUSIO MOTA				TONA EZTAINUA
NORABIDEA PERTSO- NAIAREN ABIZENA				ZATIKI GUZTIZ TXIKIA DEUTERIOA			
						TINKO, IRMO	

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

7			5	8	1		4
6			1		5		
	1	5	9	2	3		
1		3	2				
	7		5	3	4	2	
		2		1	4		
2	5				3	6	
3	9		1		8		
	6			2	7	5	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Zereginak.
2. Kalkulatzeko taula.
3. Arre, gris.
4. Bukatu da!
5. Buruko apaingarria.

EBAZPENAK

1. LANAK
2. ABAKO
3. NABAR
4. AKABO
5. KOROA

8	6	1	3	4	2	7	5
3	9	7	1	6	5	8	4
2	5	4	8	7	9	3	6
5	8	2	7	9	1	4	3
9	7	6	5	3	4	2	1
1	4	3	2	8	6	7	5
4	1	5	9	2	3	6	8
6	2	8	4	1	7	5	9
7	3	9	6	5	8	1	2

K	I	N	J	L	I	D	N	E	M	R	U	S	V
V	A	T	S	A	V	H	V	T	U	R	R	V	V
T	A	V	A	T	X	R	T	B	O	R	I	A	K
I	A	I	X	A	V	O	A	R	D	A	R	D	S
V	A	J	E	P	O	I	O	I	K	E	R	E	G
E	E	I	K	E	Z	V	K	A	V	M	A	G	O
Z	K	Z	I	L	E	I	T	E	S	U	I	X	L
U	J	E	R	U	Z	E	Z	L	E	Z	E	Z	N
T	U	R	U	Z	I	R	E	R	E	S	S	S	S
N	E	K	E	L	I					N	O	I	O
V	N	V	A	P						O	X	L	I
K	S	Z								T	D		

Anouar Merabete

NEFERTITI, AMA ZAINZAILA



MILITANTE SUTSUA

“Pertsona arrazializatu eta etorkina naiz, Marokon jaio nintzen eta 11 edo 12 urterekin Iruñera etorri nintzen bizitzera. Euskal Herriko mugimendu politikoko kidea, anarkista eta LGTB komunitateko militantea naiz. Zenbait proiektu ditut esku artean; horien artean, *vogue-a*, eta eguneroko bizitzako militantzian ikasitakoa *vogue* komunitatera eramaten saiatzen ari naiz. Kiki house of Anunnaki etxeko *ama* naiz eta *ama* bezala zaintzailea, entzule ona, enpatikoa eta kritikoa naiz eta eguneroko gauzei garrantzia ematen diet”.

“Aukeratutako familia sortzeko espazio bat da *vogue-a*”

Trans pertsona arrazializatuek, trans pertsona arrazializatuentzat sortutako dantza da *vogue-a*. Interneten bideoak ikusita horren berri izan zuen Anouar Merabetek (Martil, Maroko, 1991), eta Euskal Herrian komunitaterik ez zegoenez, Parisera joan zen ikastera. Ostean, Kiki house of Anunnaki etxea sortu zuen Iruñean; Euskal Herriko etxe bakarra da. Merabete *Nefertiti* izenez ezagutzen dute.

OLAIA L. GARAIALDE JOSU SANTESTEBAN

Dantza bat baino gehiago da *vogue-a*?

Vogue hitza *vogue fem*-etik dator, eta *ballroom* komunitatean dagoen kategoria bati erreferentzia egiten dio. *Vogue* aldizkarian agertzen ziren irudiak eta marrazkiak imitatzetik sortu zen. 70eko hamarkadako trans identitateetatik dator, orduan trans pertsona gutxiak egiten zituztenez kirurgiak, mugimendu zehatz batzuk erabiltzen zituzten disforia eragiten zieten gorputz atalak estaltzeko.

Ahalduntzeko espazio bat ere bada?

Vogue-a ahalduntzean datza, eta horretarako gogorra izan behar zara. Poliki-poliki gauzak lantzen joan gara, adibidez, diven antzera bozgorailu handi batekin kalera atera gara jendearen erreakzioekin zer egiten dugun ikusteko. Oso zaila da une oro ahalduntuta egotea, baina jantzi ahal izatea nahi duzun bezala, zu zeu izatea inongo espektatibarik eta presiorik gabe, eta besteen begiradei arretarik jarri gabe, ikaragarria da. Horrez gain, ikasteko, elkarrekin ideiak, arropa eta gauza intimoenak partekatzeak eta aukeratutako familia sortzeko espazio bat da *vogue-a*.

Kiki house of Anunnaki etxeko ama zara. Nolako izan behar da *ama* bat?

Errespetuan eta konfiantzan oinarritutako harreman bat da. Amak entzun eta aholkuak eman behar ditu eta erreferente bat izan behar da. Oso gauza gogorak bizi izan ditugu elkarrekin eta familian izan dituzten egoerei aurre egiten lagundu diet. Nahiz eta bakoitzak bere bizipenak izan, ulertu dezaket zer sentitzen duten, eta bidean lagundu diezaizket nik ere hori bizi izan dudalako. Hala ere, beldurra ere izan dut, zalanztan jarri dudalako erreferente ona izaten ari nintzen edo ez; ateratzen nintzelako, edaten nuelako eta beste gauza batzuegatik, baina uste dut ama ona izan naizela seme-alabek esan didatenagatik eta ondoan egon naizelako.

Nola izan zenuen *vogue*-aren berri?

Maristarren eskolan ikasten nuen eta Opuseko giro katolikoa zegoenez, ihes egiteko modua kultur etxean dantzatzea zen. Bertan, Julio ezagutu nuen, marika dominikar bat, eta funkya dantzatzen hasi ginen. Orduak pasatzen genituen Youtouben bideoak ikusten. Behin, edertasun



"Vogue hitza 70eko hamarkadako trans identitatetik dator, orduan trans pertsona gutxi egiten zituztenez kirurgiak, mugimendu zehatz batzuk erabiltzen zituzten disforia eragiten zieten gorputz atalak estaltzeko".

kanonak apurtzearen inguruko bideo bat ikusi genuen, Crystal LaBeijarena zen bideoa. Horri esker, jakin genuen takoiak dituzten marituak daudela eta *vogue*-a dantzatzeko dela. Geure kabuz praktikatzen genuen, ahal genuen guztietan dantzatzeko.

Bideo horiei esker ezagutu zenuen Lasseindra Ninja, House of Ninja etxeko ama?

Ikusi nuen komunitate handia zegoela. Izaera handiko dantza denez, argi ikusten da bakoitza nolako den, eta Lasseindraren bideoak ikusi nituenean, iruditu zitzaidan indartsua, basatia, agresiboa eta dramatiko zela. Gerora jakin nuen hori *vogue fem* dramatiko zela. Askok gustatzen zitzaidanez, berak bezala dantzatu eta sentitu nahi nuen.

Bera miresten zenuelako erabaki zenuen Parisera joatea?

Urte pila bat ibili nintzen modarekin zerikusia zeukaten gauzak ikasten; hala nola kosmetika eta makillajea. Ostean, okupatutako espazioetan militatzen hasi nintzen, eta ikusi nuen zortzi orduz lan egin

gabe dirua lortzeko moduak daudela. *El Burca* performancea egiten hasi nintzen. Erljio monoteisten inguruko performancea zen, beti ibili naiz bi erlijioaren eta kulturen artean. Performancearen amaieran *vogue*-a egiten nuen, baina iruditzen zitzaidan ongi egiteko lehenengo komunitatea ezagutu, eta komunitateko kideekin ikasi behar nuela.

Nolakoak ziren klaseak?

Hilabete bateko ikastaroa zen, eta gauze egiten genuen. Lehenengo kontaktua ikaragarria izan zen, biribil bat egin genuen eta elkarren artean ezagutzeko galderak egin zizkiguten. Harrituta geratu zen Iruñetik joana nintzelako, ez nekielako frantsesik eta ingelesez ez nuelako erraztasunez egiten. Esan zidan horrek erakusten zuela ikasteko konpromiso handia nuela. Zorionez, pertsona arabiar bat zegoen gaztelania zekiena eta asko lagundu zidan. Ikasi genuenak on egiten zidanez eta oso familiarra iruditu zitzaidanez, urte osoko ikastaroa egitea erabaki nuen.

Zergatik erabaki zenuen itzultzean etxea sortzea?

E28J-ko plataformak antolatutako topaketa batzuetan, Asier Rikarte, nire lehenetarikoa haurra, eskuekin mugimendu batzuk egiten ari zen, eta iruditu zitzaidan *vogue* dantzatzeko ari zela. Harengana hurbildu, eta esan nion elkarrekin ahal ginela Parisen ikasitakoa erakusteko. Enpatia handia sentitu genuen eta oso erraza izan zen. Kanean ibiltzen ginen, eta geroz eta jende gehiago hasi zenez hurbiltzen, pentsatu nuen militantziarekin uztartzeko bide bat izan zitekeela eta erreferente bihurtzen ahal nintzela. Ongi atera zenez eta interesa zegoenez, etxe bat sortzea erabaki nuen.

Orditik, doako ikuskizun asko egin dituzue; hautu politiko bat da?

Erabaki dugu espazioa mistoa izatea, jendeak ezagutu ahal izateko. Sentitzen dugu oraindik ghetto bat garela eta ikusgaitasun gutxi dugula. Hiri handi batean egingo bagenu, aniztasun handiagoa dagoenez errazagoa izanen zen kobratzea, baina Iruñean militantzia kutsua galduko luke eta familia hetero asko eta kanpotar asko ez lirakeke etorriko. ●

È avà ci offrenu l'autonomia

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Ez diogu kasu handirik egiten Victor Hugori eta gero pasatzen da, trapatatan, pasatzen dena: gaur egungo zenbait kontu ulertzeko gakoak galtzen ditugula. Hartu *Miserableak*-eko bigarren mailako pertsonaia bat, Gillenormand jauna: iraganeke erlikia gisa erretratatzeko zaigu, erregezale porrokatua baita, noiz eta XIX. mendeko folletoiaren erdian, jendea ohartzen hasi denean traje hori gastatu samar dagoela. Egun batean, nazkatu da Gillenormand bere semeorde Mariusen hippykeriez –errepublikazalea atera baitzaio–, eta hor hasten da zakarrizketan, erregimen zaharra pikutaratu zuten guztien buru gainean kaka egin behar duela: “Lapur hutsak ziren Robespierre zerbitzatu zuten guztiak! Ohoin hutsak B-u-o-naparte zerbitzatu zuten denak! Traidoreak denak, traizionatu, traizionatu, traizionatu zutenak beren errege legitimoa!”.

Eta horrela jarraitzen du puska batez, eta guk ere horretan utziko dugu –benetan: *Miserableak*, irakurri hil aurretik–, gaur izenak inporta zaizkigulako. Konturatu zarete? “B-u-o-naparte” dio Gillenormandek. Ez “Bonaparte”. Nonbait, agure karka samarrak premia sentitzen du Napoleonen korsikartasuna paseatzera ateratzeko, Frantziaren gaitz guztien iturria oso frantziarra ez dela aditzera eman nahian. Horrek gauza pare bat ulertzen laguntzen duela iruditzen zait, demagun, 1) bizilaguna atzerritarizat hartzea aspsaldiko ohitura dela kontserbadurismo dekadentearentzat; eta 2) frantziarrik frantziarrenak ere badakiela Mediterraneoko irla hura ez dela puzzle hexagonalean ondo kabitzen.

Korsika-Frantzia partiduan gauza asko gertatu da geroztik –jokaldirik onenak Wikipedian–, eta bat-batean, aurreko astean, danba: Emmanuel Macronek ez du ba bota autonomia eman behar zaiela? Interesgarriena ez da izan nola



erreakzionatu duen prentsa frantsesak, baizik eta beraien puzzleekin ere problema konponezinak dauzkaten beste estatuetako periodikoek: “Begiak igurtzi beharra zegoen hura sinesteko”, idatzi du Bruselako *Le Soir* egunkariko kronikagileak, esanez bezala: “Guk daukagun saltsa ikusita, zuek ere horretan hasi behar al duzue?”. *El Mundo* egunkari espainiar oso espainiar eta asko espainiarrak berriz, nabarmendu du Macronek planak Frantziako Konstituzioa aldatzea eskatuko lukeela –eta kultura politiko espainiarrean, badakizue noski, Konstituzioa aldatzea tabu handiagoa da gurasoekin larrutan egitea baino–.

Labur esateko, Macronek puzzlea eurogauza horietako bat ere badela. Eta nik ez dakit kontuak nola bukatuko duen, baina Bidasoaren alde honetan autonomia, estatutu, estatus, foru-hobekuntza, kupo, transferentzia eta beste mota askotako kontserben prestakuntzan esperientzia pixka bat pilatu dugunez, iruditzen zait Frantziako pre-

sidenteak *dribbling* honekin zeozer irabazi duela. Hasteko, Yvan Colonnaren hilketaz geroztik Korsikan zegoen rolo txarra baretzeko erabil dezake xingola batekin bildua eskaini berri duena. Eta jarraitzeko, denbora ere irabazi dezake, asuntua honen eskutik erdiz erdi ireki daitekeelako kalabaza tripontzi bat, hedabideetan ordutarako talaka emango duena aitortzarik ez duten gainontzeko nazioez: kontxo, hemen zeundeten beraz? Zerbait nahi duzuela? A, baina hori ez. Ea zer iruditzen beste hau. Eta tokian tokiko hautetsiek bost galdatu, eta Parisen arrapostu konformatzeko birekin, eta tantorik gabeko pilota-partidu administratibo eternal bat, *procesisme* macrondar baten hasiera izan daitekeena.

Portzierto, *Miserableak*-eko Gillenormand jaunaren etxean bada baionar bat ere. Ez dio molestatzeko Napoleon korsikarrak bezainbeste: morroi leiala du “Basque” soil batez izendatzen duen pertsonaia. Deus gutxi eskatzen diolako izango da. ●

2024

Ilargia eta

landareak

URTEKO LANEN AGENDA



Jakoba Errekondo eta
Antton Olariaga

Prezioa **15 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik
gorako erosketetan.
Erosketak **BIZUM** bidez
ordaindu daitezke.

CLIMA IDEAL

UDAKO KARTELAK ERAKUSKETA

2023.07.01–2023.10.15

SAN TELMO
MUSEOA



© Rafael Penagos, VEGAP, Donostia / San Sebastián, 2023

Estudio Lanzagorta

ANTOLATZAILEAK

STM
San Telmo Museoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

DX

donostia
kultura

ERAKUNDE BARESLEAK



Euzko Jaurlaritzaren
Gobernua Vasco



Gipuzkoako
Foru Erkidegoa



ETORKIZUNA
ORAIN